

IKASKETA eta ZERBITZU SOLIDARIOA: ONURA SOZIALA DUEN ERRONKA

Lanbide Heziketarako ikasketa +
zerbitzuko gida praktikoa



Rafael Mendía Gallardo

Zuzendari editoriala: Aitziber Mugarra Elorriaga

Autorea: Rafael Mendia Gallardo

Aholkularitza: ZERBIKAS Fundazioa

La Laguna, 5 behe

(Harrobi plaza)

48003 Bilbao

Tfno.: 618159269

info@zerbikas.es

www.zerbikas.es / www.zerbikas.eus

Genero ikuspegiaren berrikusketa + Herritar hizkuntzarena:

Lina Ugarte Sauret, Nerea Aizpurua Iraola.

Irakurketa erraza Euskadi Irakurketa Erraza

Itzulpena: Miren Agurtzane Mallona Legarreta

Diseinua: Erreka Multimedia S. Coop.

Irudia: Aitziber Raya Puertas

ISBN: 978-84-09-59950-9

Depósito legal: LG BI 453-2024



Aitorpena - Ez-komertziala - Partekatu berdin (by-nc-sa):

Jatorrizko lana eta lan horretatik eratorritakoak ezin dira merkataritza helburuetarako erabili. Eratorritako lanen zabalkundea jatorrizkoaren lizentzia berdinean egin behar da.

Aurkibidea

1. AURKEZPENA	4
2. HURBIL GAITEZEN LANBIDE HEZIKETARA	6
3. NOLA ERAIKITZEN DA HERRITARTASUNA?	7
2030 Agendarekin Herritartasun berria eraikitzea	10
Lanbide Heziketako ikastetxe batean herritartasuna eraikitzen nola sakondu	10
4. IKASKUNTZA-ZERBITZUA: LANBIDE HEZIKETAN HERRITARTASUNA ERAIKITZEKO PROPOSAMENA	9
Nortasun-ezaugarriak	10
Zer ikaskuntza	10
Zerbitzuaren esparruak	10
Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu baten osagaiak	10
5. IKASKUNTZA-ZERBITZUA ETA ZEHARKAKO GAITASUNEN GARAPENA	12
Zeharkako gaitasunak	10
Ikaskuntza-zerbitzua, zeharkako gaitasunak lantzeko proposamena	10

6. IKASKUNTZA-ZERBITZUA ETA LAN- ETA HERRITAR-ORIENTAZIOA	14
Ikaskuntza-zerbitzua, ekintza-hausnarketatik orientatzeko estrategia	10
7. IKASKUNTZA-ZERBITZUA, LANBIDE HEZIKETAREN PEDAGOGIAKO PROIEKTU GISA PENTSATUA	20
Ikaskuntza proiektu integratuak	10
Ikaskuntza-zerbitzua, Lanbide Heziketako gizarte-onurarako proiektua	10
8. IKASKUNTZA-ZERBITZUA, ONURA SOZIALA DUEN ERRONKA	26
Erronketan oinarritutako lankidetzako ikaskuntza (ETHAZI): euskal eredua	10
Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu baten garapena onura soziala duten elkarlaneko erronken metodologietatik abiatuta	35
Adibidea: LHko ikaskuntza-zerbitzurako proiektua: Hahatayrekin birziklatzen	39
9. IKASKUNTZA-ZERBITZUA: KOMUNITATEARI ZERBITZU BAT EMATEN ZAION BITARTEAN EKITEN IKASTEA	35
Ekintzailetzarako gaitasuna xehatuz	10
Gizarte-ekintzailea	10
Ekintzailetzarako gaitasun hori nola garatu	10
Ikaskuntza-zerbitzua eta espiritu ekintzailea garatzea	10
10. ONDORIOA: IKASKUNTZA ZERBITZUA LANBIDE HEZIKETAN: ONURA SOZIALA DUEN ERRONKA	51
11. BIBLIOGRAFIA	65

1. AURKEZPENA

Gida hau Lanbide Heziketaren helburuetako batean oinarritzen da: "garapen pertsonalean laguntzea herritartasun demokratikoa gauzatzen, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bultzatuz".

Horregatik, ikasleei hazkunde pertsonalean motibatzen eta herritartasun aktiboa garatzen laguntzen duen bide gisa aurkezten dugu ikasketa+zerbitzua.

Gida honetan lehenengo galdera honi erantzuteko ahalegina egingo dugu: "Nola eraikitzen da herritartasuna?" Hortik abiatuta, gazteek gaur egun lortu behar dituzten konpromisoetan murgilduko gara, gizartearen garatzen laguntzen dutela jabetzeko, hurbileko elkartetik hasi eta herritartasun globaleraino.

Ikasketa-zerbitzua hezkuntza-proposamen gisa aurkezten dugu, gazteek komunitatea ardatz hartuz, gizarte-mailako premia garrantzitsuak identifikatzera, komunitatea eraldatzeko ekimenak ezagutzera, eskuratutako ezagutza teknikoak aplikatzera edo proiektu solidarioen bidez errealtate hori eraldatzera bideratzen dituenak.

Lanbide Heziketan, proiektuak ikasle-taldearen profesionaltasunaren adierazpena dira, bai eta herritar eta profesional rola sendotzeko bidea ere; hartara, ikasketa+zerbitzuaren bidez dimentsio soziala lortzen dute. Bestalde, interesgarria da sakontzea erronketan oinarritutako elkarlaneko ikasketa+zerbitzuko ikaskuntzako proiektuak garatzeko eskaintzen dituen konexioetan eta aukeretan.

Hori da esku artean dugun lana: Lanbide Heziketari, gradu guztietan, gizarte-ekintzailetzarako esperientzia berritzaileetara zabaltzeko aukera eskaintzea, ikasketa+zerbitzurako proiektuetan ikasleen profesionaltasuna garatzetik abiatuta.



Aitziber Mugarra Elorriaga
ZERBIKAS Fundazioko Patronatuaren batzordeburua

2. HURBIL GAITEZEN LANBIDE HEZIKETARA¹

Lanbide Heziketa prestakuntza eta ikaskuntza jardueren multzoa da, pertsonak hainbat lanbide modu kualifikatuan egiteko/gauzatzeko, enplegua lortzeko eta bizitza sozialean, kulturean eta ekonomikoan modu aktiboan parte hartzeko gaitzen dituen.

Pedagogia guztia helburu hauetara bideratuta dago: "Pertsonak jarduera profesionalerako kualifikatzera eta herrialdearen garapen ekonomikoan laguntzera, bizitzan gerta daitezkeen aldaketa profesional eta sozialetara egokitzen laguntzera".

Hauek dira Lanbide Heziketaren lau helburu nagusiak:

1. Ikasleak lanbide-eremu batean jarduteko prestakuntza.
2. Bizitzan zehar gerta daitezkeen lan-aldaketetara egokitzen laguntzea.
3. Garapen pertsonalean eta herritartasun demokratiko eta baketsuan laguntzea.
4. Hezkuntza-sisteman aurrera egin dezan ahalbidetzea, bizialdi osoan ikaskuntzaren esparruan.

Ikasleengan gaitasun profesional, pertsonal eta sozial egokiak lortzea da helburua, ikasle-talde bakoitzaren mailaren arabera.

Alde batetik, gaitasun profetionalek eskatzen dute jarduera profesional definitu bat izatea prestakuntza programako gaitasun orokorraren barruan. Gainera, produkzio-sektorea, lan-harremanak eta laneratzeko mekanismoak ulertzeko balio duten gaitasun teknikoak eta gaitasun sistemikoak jasotzen dituzte.

Gaitasun pertsonalek, langile gisa, diziplinako, bakarkako eta taldeko lanerako ohiturak ziurtatu behar dituzte. Baita autoikaskuntzarako eta gaitasun kritikorako gaitasunak ere, laneko eta ingurumeneko arriskuak aurreikusi ahal izateko eta baldintza seguru eta osasuntsuetan lan egiteko neurriak hartzeko.

¹ 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. (2020ko abenduaren 30eko BOE, 340. zk.)
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2020/12/29/3>
4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa (2018ko abuztuaren 3ko BOE) <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2018/06/28/4>

Bestalde, etorkizuneko ikaskuntza eta produkzio prozesuen bilakaerara eta gizarte-aldaketara egokitzeko motibazioa ematen duen lanbideko nortasuna garatu nahi da, lanbideko ibilbidea kudeatu ahal izateko. Horrela, ikasleak enplegarritasuna hobetzeko prestakuntzako ibilbide egokienak aztertuko ditu, baita ekoizpen sektoreko digitalizazio gaietakoak ere.

Ikasleen profesionaltasunean, jarduera profesionalean eta pertsonalean gizarte-harremanak sortzeko gaitasuna ere sartzen da eta harreman horiek honetan oinarrituko dira: gainerako pertsonetikiko errespetuan, edozein motatako indarkeriaren eta jokabide sexisten arbuioan eta gatazken konponbide baketsuan.

Era berean, oso garrantzitsua izango da ikasleen artean sormena, berrikuntza eta ekimen sortzailea sustatzea, enplegarritasuna eta garapen profesionala errazteko.

Bestalde, lanbide heziketak denontzako aukera berdintasun eraginkorra sustatuko du, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari arreta berezia eskainiz. Gainera, irisgarritasun unibertsala eta desgaitasuna duten pertsonentzako beharrezko laguntza-baliabideak hartuko dira kontuan.

Era berean, lanbide-heziketak bizialdi osoko ikaskuntza ahalbidetuko du eta pertsonak prestakuntza-eskaintzetan sartzea eta ikaskuntza beste erantzukizun eta jarduera batzuekin uztartzea bultzatuko du. LHren funtsezko beste helburuetako bat da "garapen pertsonalean laguntzea, herritartasun demokratikoa gauzatzea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bultzatuz".



Horixe da gida honen gakoa. Ondorioz, ikasketa+zerbitzurako lehen helburuekin koherentea den bidea da, eta ikasleak ere aktibatzen ditu hazkunde pertsonalerako eta herritartasun aktiboaren garapenerako ibilbidean.

Gida honetan zehar, Ikasketa+zerbitzuko esperientzietan saritutako Lanbide Heziketako esperientziak agertzen dira. Esperientzia horiek guztiek bideo bat dute. Horietako batzuek PDF formatuan ere garatu dute proiektua, eta ESPAINIAKO IKASKETA+ZERBITZU SAREAREN (REDAPS) webgunetik jaitsi ditzakezu, "Sariak" ataletik, hain zuzen.
<http://www.aprendizajeservicio.net>

Talde berdea: irakatsiz ikasi

Helduarora igarotzeko programa bateko neska-mutilek eskola-baratzeak jarri dituzte abian lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Parte hartu dute:

- tokiko erakunde publikoek
- ekimen partikularrek
- erakunde solidarioek

Horrela, elikagai osasungarri eta askotarikoek ekoizpena eta kontsumoa sustatu dute.

Asprona Hezkuntza Bereziko Zentroa, Almansa, Gaztela Mantxa

(2017ko Ikasketa+Zerbitzuko Saria. Ohitura osasungarriak sustatzea. DKV. Osasuna eta Segurtasuna)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premios-aps-2017/>

Lankidetzan aritzea, gure nortasun-ikurra

Lanbide Heziketako ia zentro guztiek komunitatearentzako zerbitzuak garatzen dituzte, herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko jarduera gisa: hiri-altzariak, mantentze elektrikoa, lorategi bertikala, konponketak... Horrela, prestakuntza arautuaren edukia praktikan jartzen dira.

LHI-FIP Sakana, Altsasu, Nafarroa

(2017ko Ikasketa+Zerbitzuko Saria. Elkartasuna eta Giza Eskubideak. La Caixa Gizarte Ekintza)
<https://www.aprendizajeservicio.net/premios-aps-2017/>

Elektronika eta Autismoaren espektroko nahasmenduak. Zubiak eraikitzen

Automatizazioko eta Robotika Industrialeko Goi Mailako Heziketa Zikloko 1. mailako ikasleek gailu elektronikoak diseinatu eta eraiki dituzte Autismoaren Espektroko Nahasmendua duten haurren ingurunearekiko interakzioa errazteko. Horretarako, Nafarroako Autismo Elkartarekin eta Santa Luisa de Marillac Ikastetxearekin lankidetzan aritu dira, horiek baitira beren diseinuen erabiltzaile nagusiak.

LHI-LH Salestarrak, Iruña, Nafarroa

(2018ko Ikasketa+Zerbitzuko Saria. Elkartasuna eta Giza Eskubideak. La Caixa Gizarte Ekintza)
<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-solidaridad-y-derechos-humanos/>



3. NOLA ERAIKITZEN DA HERRITARTASUNA?

Lanbide Heziketa garrantzi estrategikoa lortzen ari da gure ekoizpen-sarearen lehiakortasunerako eta aurrerapenerako eta pertsonen enplegarritasunerako. Eta, gainera, Lanbide Heziketaren helburuetako bat kontuan hartu behar da, hau da, herritartasunaren garapena, horren oinarriak derrigorrezko hezkuntzan ezarri baitira².

Garrantzitsua da gizalegezko zer jarrera eta trebetasun garatu behar diren identifikatzea eta jarrera horiek finkatzeko prestakuntza-ibilbideak eta moduak sendotzen saiatzea.

Herritartasuna eskubideen eta betebeharren gauzatze gisa uler dezakegu, baita ingurune hurbilarekin eta planetarekin partekatutako erantzukizun gisa ere.

Kontua da ezagutzea gazteak gai direla gizabidezko bizitzan parte-hartze eraginkorra izateko³.

Horretarako, hainbat trebetasun eta jarrera garatu behar dira. Esate baterako, espero da gazteek parte hartzea erabakiak hartzeko, gatazkak konpontzeko eta negoziatzeko prozesu kolektiboetan, gai politiko eta sozialen eztabaidan, edo gobernuaren ekintzen jarraipenean, interes publikoaren mesedetan.

“Herritartasun arduratsuak” **herritarren eskubideak eta erantzukizunak ezaupidearekin eta gauzatzearekin** lotutako alderdiak biltzen ditu. Kontzeptua herritar arduratsuaren zereginarekin oso lotuta dauden balio batzuekin uztartzen da. Horien artean sartzen dira demokrazia, giza duintasuna, askatasuna, giza eskubideekiko errespetua, tolerantzia, berdintasuna, legearekiko errespetua, justizia soziala, elkartasuna, erantzukizuna, leialtasuna, lankidetzatza, parte-hartzea eta garapen espiritual, morala, kulturala, mentala eta fisikoa. Horiek guztiak funtsezkoak dira herritartasun arduratsuaren kontzeptua eta hura gauatzeko modua ulertzeko⁴.

² AREVALO, JORGE (2018) Hacia una formación profesional diferente. Cuadernos de Pedagogía, 487. zk., martxoa.

³ MENDEZ, M. eta DE LA TORRE-BUENO, S. (2021). Aprendizaje-servicio, actitudes y habilidades cívicas en un grupo de estudiantes de una universidad privada de Lima, Perú. RIDAS, *Revista Iberoamericana de Aprendizaje Servicio*, 11. zk., 64-79. or. DOI 10.1344/RIDAS2021.11.4

⁴ EURYDICE (2005). *La educación para la ciudadanía en el contexto escolar europeo*.

Ikasleek herritartasun arduratsuaren mailak lor ditzaten, prestakuntza prozesuak gizarte demokratikoaren funtsezko printzipioetan oinarritu beharko du, tolerantziaren eta giza eskubideekiko errespetuan. Ikasleen identitate nazional eta europarrari ere lagunduko dio.

2030 Agendarekin Herritartasun berria eraikitzea⁵

2030 Agendak herritartasun berrirako ikuspegia zabaltzen digu, dagoeneko gazteriari ere eragiten diona. Tokiko ekintza, ikuspegi orokor batekin.

2030 Agenda mundu-mailako esparru berria da, gizateria jasangarritasunaren bidera berbideratzeko. 2030 Agendaren muinean daude Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH). GJH unibertsal, eraldatzaile eta inklusibo horiek gizadiarentzako garapen-erronka nagusiak azaltzen dituzte. Garapen Jasangarrirako 17 Helburuen xedea da pertsona guztiei lurrean bizitza jasangarri, baketsu, oparo eta bidezkoa bermatzea, orain eta etorkizunean.

Helburu horiek gizateriaren biziraupenerako munduko funtsezko erronkei heltzen diete, eta ingurumen-mugak eta baliabide naturalen erabileraren mugak ezartzen dituzte. Halaber, onartzen dute pobrezia desagerrarazteko garapen ekonomikoko estrategiak lerrokatu behar direla.

GJHez gizarte-mailako premia batzuei egiten diete erreferentzia, haien artean, hezkuntzari, osasunari, gizarte babesari eta lan aukerei, klima aldaketari eta ingurumenaren babesari. Garapen Jasangarrirako funtsezkoak diren oztopo sistemikoei irtenbidea aurkitzen saiatzen dira, besteak beste, desberdintasunari, kontsumo ereduari, erakundeen ahuleziari eta ingurumenaren narriadurari.

Mundu jasangarriagoa sortzeko, gure pentsatzeko eta jarduteko modua eraldatu behar dugu. Horregatik, pertsonak aldaketa-eragile bihurtu behar dira, garapen jasangarrian laguntzeko ahaldunduko dituzten ezagutza, trebetasun, balio eta jarrerekin.

Beraz, hezkuntza funtsezkoa da garapen mota hori lortzeko. Hala ere, hezkuntza mota guztiek ez dute garapen jasangarria sustatzen. Hazkunde ekonomikoa bakarrik sustatzen duen hezkuntzak kontsumo-eredu ez-jasangarriak areagotzea ekar dezake.

⁵ UNESCO (2017). *Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible Objetivos de aprendizaje*

Lanbide Heziketako ikastetxe batean herritartasuna eraikitzen nola sakondu

Zentroaren antolaketa kultura

Lehen aldiz hurbiltzean, ikastetxea antolatzeko modua eta “kultura” zein den ikusten dugu, nola inplikatzaren diren ikasleak ikaskuntza-ingurune segurua, demokratikoa eta ikastetxe barruko eta kanpoko kontsulta eta erabaki organoetan parte hartzeko aukerarekin errespetuzkoa sortzen.

Ikastetxearen inplikazioa komunitatearen hobekuntzan

Lanbide Heziketako ikastetxea hurbileko edo urruneko komunitatea hobetzen nola inplikatzaren diren ikusi nahi da, bere berezitasunetatik eta bertan egiten diren heziketa-zikloetatik abiatuta. Adibidez, tokiko komunitatearekin konprometitzen diren, bertako kide izatearen sentimendua indartzen duen eta haren balioak partekatzen dituen, baita ikasleak komunitate horren eraldaketan eta herritartasun globalaren inguruko konpromisoan inplikatzaren diren.

Prestakuntza planteatzeko modu horrek eskola-elkarte osoaren portaera determinatzen du: ikasle, irakasle, irakasle ez diren langile eta familiena. Era berean, eragina du ikastetxeek tokiko komunitatearekin edo komunitate zabalagoarekin duten elkarrenerginean eta beren arazoak konpontzeko edo erreformak eta ideia berriak aplikatzeko moduan.

“Herritartasun-esperientzia” hori gazteek parte hartzeko eta gizarte osoaren garapenean eta ongizatean laguntzeko duten beharraz arduratzen da.



Ikasleek ikastetxean eta inguruan duten parte-hartzea

Ikasleen parte-hartzeak hainbat jarduera jaso ditzake barruan:

- informazio-ekimenak, gizartea nola aldatzen den hobeto ulertzea.
- tokiko komunitatearen eguneroko bizitzan benetan parte hartzea.

Azpirarratu nahi dugu komunitateko erakundeen edo komunitatean jarduten duten eragileak ezagutzea. Adibidez, ekintza komunitarioko GKEak edo mota guztietako premia sozialetan edo lehenbaitasun humanitarioetan jarduten dutenak. Baita kulturaren eta ingurumenaren arloko GKEak ere.

Beste ekimen batzuek proiektu solidarioak bultzatzen dituzte, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan bizi diren edo hondamendi naturalen biktima diren adingabeentzat. Edo borondatezko lana, baita adinekoei beren etxetan laguntzen dietenak edo aisialdirako guneak edo tokiko parke eta basoak garbitzen laguntzen dutenak ere.

Gizarte zibilean parte hartu nahi duten zentroek **bazkide potentzial** ugari dituzte beren jardueretan laguntzeko. Horien artean daude agentziak publikoak, tokiko, estatu-mailako eta nazioarteko enpresa eta industriak, erakunde kulturalak, erlijiosoak edo sozialak, gazteen elkarteak eta hezkuntza erakundeak.

Gazteriak, herritartasun berriaren ikuspegitik:

- Egungo gizartearen aniztasuna eta izaera ebolutiboa ulertzeko ahalegina egiten du, baita sistema demokratikoaren ezaugarriak eta balioak ulertzeko ere.
- Hainbat gertaera eta arazori buruz modu kritikoan eta logikoan hausnartzeko aukera ematen duten eginkizunak betetzen ditu.
- Errealitatea aztertzeke ikuspegi desberdinak daudela ohartzera bideratutako zereginak egiten ditu.

- Lankidetzan dihardu mugitzen den eremuetan: zentroan, komunitatean, familian...
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eta eskolako bizitzan eta partaide den erakundeetan parte hartzen du.
- Trebetasun sozialak eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko trebetasunak erabiltzen ditu.
- Desberdintasuna baloratzen du eta eskubide-berdintasuna aitortzen du, bereziki gizonen eta emakumeen artean.



Safalud

Dietetikako Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleek dieta mediterraneoaren inguruko materialak landu eta jarduerak eta baliabideak dinamizatu dituzte Lehen Hezkuntzako haurrekin eta haien familiekin, elikadura-jokabidea hobetzeko eta haurren obesitatea eta hari lotutako gaixotasunak prebenitzeko.

Safa-Grial ikastetxea, Valladolid, Gaztela eta Leon

(2018ko Ikasketa+zerbitzuko Saria. Ohitura osasungarriak sustatzea. DKV Osasuna eta Segurtasuna)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-promocion-de-habitos-saludable/>

Habiak euri-uren bideetan

Oinarrizko Lanbide Heziketa programako ikasleek kaskabeltz, buztanikara eta beste hegazti batzuentzako kutxa-habiak diseinatu, eraiki eta instalatu dituzte hiriko parke batean. Horrekin zumar-kakalardo izurria kontrolatu nahi dute, zumarrei eragiten dien intsektuarena, Auzo Elkartearrekin, Seo BirdLife-ekin, Parke eta Lorategi Zinegotzigoarekin eta EHUKo eta UVko ikasleekin lankidetzan.

FPA Nuestra Sra. de la Misericordia, Valentzia, Valentziako Erkidegoa

(2018ko Ikasketa+zerbitzuko Saria. Ingurumena. CENEAM, Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionala)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-medio-ambiente/>

La llavor d'Amigó

Amigó Fundazioko nerabe talde batek emakume etorkin afrikarren elkarte bati lagundu dio hiriko baratze bat sortzen eta mantentzen. Horrela, elkartearen lanari balioa eman nahi izan diote, gizarte-lana eta landa-lana babestu. Gainera, herriko haztegiekin eta El Armelar ikastetxeko ikasleekin lankidetzan aritu dira.

Amigó Fundazioa, Paterna, Valentziako Erkidegoa

(2018ko Ikasketa+zerbitzuko Saria. Immigrazioa eta Bizikidetzatza. Torresco)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-inmigracion-y-convivencia/>



4. IKASKETA+ZERBITZUA: LANBIDE HEZIKETAN HERRITARTASUNA ERAKITZEKO PROPOSAMENA

Bi hitzek, “ikasketa+zerbitzua”, kontzeptu bakar bat osatzen dute eta gure gazteriaren artean Lanbide Heziketan herritartasuna sortzeko helburua garatzeko proposamen egoki baten oinarria dira.

“**Ikasketaz**” ari garenean, eraikitzen ari diren lanbideko ikaskuntzez ari gara, pertsona heldua izatearekin, parte-hartzearekin, ekintzailetzarekin etab. zerikusia dutenak ahaztu gabe.

Eta “**zerbitzuaz**” ari garenean, komunitatearentzako zerbitzu baliagarriaz ari gara. Gure ikaskuntzak komunitatearen zerbitzura jartzea, eta prozesu horretan herritartasun eta partaidetza ikaskuntzak garatzea, gatazkak konpontzea...

Ikasketa+zerbitzua hezkuntzako proposamen bat da, gazteek komunitatea ardatz hartzerantz bideratuta dagoena, gizarte-premia garrantzitsuak identifikatzera, komunitatea eraldatzeko ekimenak nola ekarri aztertzea, eskuratutako ezagutza teknikoak aplikatzera edo errealtate hori proiektu solidarioen bidez eraldatzean ezagutzak eskuratzera.

Ikasketa+zerbitzua hezkuntzako proposamen bat da, komunitatearentzako zerbitzua edukien, trebetasunen eta balioen ikaskuntzarekin uztartzen duena. Ikasketa+zerbitzuak ikaskuntza pedagogikoa eta solidarioa batzen ditu, ikaskuntza eta komunitateari zerbitzu ematea proiektu berean konbinatzen baititu. Proiektu horietan parte hartzen duten pertsonen inguruneko premiaren bat hobetzeko eta zeregin horretan jarduteko egiten dute.

Azken batean, onura soziala duen hezkuntza-proiektua da, bere osagaiak integratzean zentzua hartzen duen hezkuntza-eredua:

- **Ikasketa:** hezkuntza-asmo esplizitua du, eta gaitasunak, ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak bereganatzearekin lotuta dago.
- **Zerbitzua:** protagonisten interesa mugitzen du komunitaterako zerbitzurantz.
- **Ikasketa+zerbitzua:** ikasketa herritartasun aktiboko ariketarekin lotzen du.

Nortasun-ezaugarriak

- **Estrategia pedagogiko berritzailea:** Ikasketa+zerbitzua hezkuntza formalerako eta ez-formalerako estrategia pedagogiko erabilgarria da, adin guztiei eta hezkuntza-etapa guztiei zuzendua. Hezkuntza formalaren eremuan tutoretzetan praktikan jar daiteke, hainbat ikasgaitan edo denbora jakin batean.

- **Gizarte-premia zehatzei erantzutea:** Ikasketa+zerbitzuak zerbitzua gizartearen benetako beharrei erantzuteko bide gisa ulertzen du. Premiak hainbat eratakoak izan daitezke: ingurumena babestea, kultura-ondarea berreskuratzea, desabantaila egoeran dauden gizarte-taldeei laguntzea... Zerbitzuak aukera emango du errealitatearen aurretiazko ezagutzak aplikatzeko, galdera intelektualak eta zibikoak egiteko eta ikaskuntza berriak bultzatuko dituzten esperientzien iturri izateko.

- **Bizitzarako ezaupideak eta trebetasunak eskuratzeko prozesua:** Ikasketa+zerbitzuak ikaskuntza-prozesu kontziente, planifikatu eta sistematikoak garatzen ditu, zerbitzuko zereginak izaera profesionaleko eduki eta gaitasun garrantzitsuekin eta funtsezkoekin lotuta. Bizitzan zeharreko ikaskuntza.

- **Metodo pedagogiko aktiboa eta gogoetatsua:** Ikasketa+zerbitzua esperientziaren, parte-hartze aktiboaren, hausnarketaren, diziplinartekotasunaren, arazoen konponketaren eta lankidetzaren pedagogian oinarritzen da.

- **Sareko lana:** Ikasketa+zerbitzuak sareko lana eskatzen du, hezkuntza-erakunde formala eta zerbitzua ematean eragin nahi den errealitatean parte hartzen duten gizarte erakundeak koordinatzeko. Aliantza horrek aukera ematen die hezkuntza-erakundeei gizarte-ingurunera zabaltzeko eta prestakuntza-mailako eragina izateko. Horrela, hezkuntza-erakundeen ekintza osatzen du, "hiri hezitzaile" kontzeptua aplikatzen baitu (herriar guztiek prestakuntza-ekintza bat gauzatzen dute bertan).

- **Eragin hezitzailea eta eraldatzailea:** Ikasketa+zerbitzuak eduki intelektual, emozional eta jokabidezkoetan eragiten du; hainbat arlotan aplikatu daitezkeen gaitasunak garatzen ditu; pentsamendu kritikoa eta erantzukizun zibikoa bultzatzen ditu; garapen pertsonala eta herriartasuna sustatzen dituzten balioak transmititzen ditu, eta gizarte-ingurunea hobetzen laguntzen du.



Zer ikaskuntza

Ikasketa+zerbitzuko "ikaskuntzez" ari garenean, alde batetik, "ikaskuntza berriez" ari gara, "ikaskuntzen errefortzuaz", "ikaskuntzak praktikan jartzeaz", ikastetxearen identitatearen parte diren "curriculumetik kanpoko ikaskuntzez"...

Lanbide Heziketako edozein gradutako ikasketa+zerbitzuko proiektuek lanbidearen berariazko gaitasun profesionalak komunitatearen zerbitzura jarri nahi dituzte. Hona hemen adibide batzuk:



Produktuaren sorreran, zerbitzuaren eskaintzan, laguntza-harremanean eta abarretan esku hartzen duten objektu eta aldagaietan eraginkortasunez jardutea ahalbidetzen duten **gaitasun teknikoak**, eta gaitasun horien potentzial guztia kausa solidarioen edo komunitatearen hobekuntzarako kausen zerbitzura jartzen dira.

Gaitasun sistemikoak eta antolamendukoak aukera ematen dute jardueraren prozesuen ikuspegi orokorra izateko eta jarduerak beste pertsona batzuekin koordinatzeko. Gainera, komunitateari zerbitzu emateko proiektuen buru izateko gaitasun horri esker, alderdi teknikoak, ekonomikoak eta sozialak modu arrazionalen eta bateratuan antolatzeko modua ematen dute.

Harremanetarako gaitasunak aukera ematen dute lan-antolamenduan integratzeko eta LHko ikastetxeko edo kanpoko beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzeko, eta gaitasun hori praktikan jartzeko, gizarte-mailan baliagarri diren proiektuen antolamenduan eta lankidetzan.

Kontingentziei erantzuteko gaitasunak aukera ematen dute jarduerak gauzatzean atzemandako arazo, anomalia edo hausturei erantzuteko, baita komunitatearen aldeko lan kooperatiboan gertatzen diren kontingentziei aurre egiteko ere.

Ekintzailatzeko gaitasunak esker, lanbide heziketako ikasleek beren ingurunea modu kritikoan azter dezakete eta ikusten dituzten mugak, zailtasunak edo arazoak garapen pertsonal eta sozialerako aukera bihurtu. Autonomia eremu pertsonalean, familiakoan, herritarrean, sozialean, politikoan, sindikalean, komertzialean...garatzean jartzen da praktikan.

Ikasketa+zerbitzuak beste ikaskuntza baliotsu batzuk garatzen ere laguntzen du, herritartasun arduratsua garatzeko. Hona hemen azpimarragarrienak:

- a) Giza eskubideak.
- b) 2030 Garapen Jasangarrirako Helburuak, toki-garapenean.
- c) OMEren bizitzarako trebetasunak herritarren garapenean.
- d) Europar Batasuneko bizialdi osoko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunak.
- e) Lanbideko gaitasun teknikoak.
- f) Herritarren bizikidetz...

Zerbitzuaren esparruak

Ikasketa+zerbitzuko proiektu bat esparru askotan gara daiteke. Gainera, komunitatearen beharren arabera, hobetzeko esparru berriak hurbileko edo urruneko inguruneetan aurki daitezke.

Lanbide heziketaren eremuan, titulazioaren arabera, aukera asko daude proiektu horiek garatzeko. Hona hemen ikasketa+zerbitzuko proiektuek hobetzen lagun dezaketen eremu garrantzitsuen adibide batzuk:

• Garapen Jasangarrirako Helburuak

Mundu-mailako helburuak dira eta herrialde garatuei eta garapen bidean daudenei eragiten diete. Helburu horiek garapen jasangarriaren hiru arloak batzen dituzte: ekonomikoa, soziala eta ekologikoa. Horregatik, oso garrantzitsua da 2030. urtea baino lehen lortzea. Gainera, gizateriaren eta planetaren bizitza hobetzeko ekintza zehatzak bultzatzen dituzten helburuak dira eta ingurune hurbilean dute eragina: komunitatean, inguru hurbilean, herrian edo auzoan, baita mundu-mailan ere, eta herritartasun globala garatzen laguntzen dute.

• Elkartasun eta lankidetzako proiektuak

Giza Eskubideen, kausa solidarioen eta humanitarioen sentsibilizazio eta defentsarako proiektuak, irismen zabala eta nazioartekoa dutenak.

• Beste pertsona batzuentzako zuzeneko laguntza

Laguntza zuzeneko proiektuak, behar izan ditzaketen pertsonentzat: baztertzeko arriskuan dauden kolektiboentzat, etorkinentzat, desgaitasun fisiko edo psikikoak dituzten pertsonentzat...

- **Eskolatzen laguntzea**

Eskolatzen eta prestakuntzan laguntzeko proiektuak. Eskola ingurunea eta errefortzua ezagutzea, ikasteko motibazioa, helduen etengabeko hezkuntza...

- **Osasuna sustatzea**

Osasunaren arloko prebentzio-proiektuak, bizimodu osasungarriak sustatzea, droga-mendetasunak prebenitzea, gaixotasunak dituzten pertsonen laguntzea...

- **Belaunaldien artekoa**

Hainbat belaunalditako pertsonak elkartzeko eta elkarrekin jarduerak egiteko guneak sortzeko proiektuak, bereziki haurren, nerabeen, gazteen eta adinekoen artean.

Belaunaldien arteko programetan parte hartzen duten adinekoek gaixotasunei aurre egiteko gaitasuna hobetzen dute, teknologia berriak erabiltzeko trebetasunak garatzen dituzte eta komunitateko bizitzan hobeto integratzen dira.

Haurrek eta gazteek autoestimua eta bizimodua hobetzen dituzte, adinekoenganako laguntza eta lankidetzaren sentimenduak sustatzen dituzte, beren buruarenganako konfiantza areagotzen dute eta beren kultura eta tradizioak ezagutzeko aukera ematen diete...

- **Ingurumena**

Ingurumena babesteko, zaintzeko eta arlo horretan hezteko, materialak birziklatzeko eta bestelako proiektuak, ingurumen-auditoretzak eta garbiketa egiteko proiektuak. Baita natura eta hiri-ondarea kontserbatzeko, energia aurrezteko eta lurraldeko fauna zaintzeko ere.

- **Kultura-ondarea**

Kultura-ondare baliagarria zaintzeko eta zaharberritzeko proiektuak eta kultura-tradizioak leheneratzeko eta zabaltzekoak.

- **Politikan parte hartzea**

Politika publikoetan eragiteko proiektuak, auzoan edo inguru hurbilean parte-hartzea sustatzeko proiektuak. Helburua herritarren konpromisoa eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzea da. Komunikabideen, kultura-ekimenen, partaidetza-prozesuen eta abarren bidez egin daiteke.

Ikasketa+zerbitzuko proiektu baten osagaiak

Roser Batllék, "Aprendizaje-Servicio, compromiso social en acción" liburuan, ikasketa+zerbitzuaren oinarrizko lau osagaiak aipatzen ditu:

1. Ingurunearen premia soziala
2. Komunitateari zerbitzua ematea
3. Ikaskuntzak
4. Sareko lana

Lau osagai horiek ikasketa+zerbitzuko proiektu guztietan egon behar dute: ikaskuntzako proiektu integratuak, arazoak konpontzea, erronkak... Era askotara jarri daiteke martxan ikasketa+zerbitzuko proiektu bat. Ikasketa+zerbitzuko espainiar sareak (ZERBIKAS sare horren partaide da) eskema baliagarri eta bateratu bat proposatzen du ikasketa+zerbitzua martxan jartzeko, hemen ikus dezakegunez:

1. Inguruko zer arazo edo premiari erantzuten zaion.
2. Zerbitzuaren deskribapena eta nolako zereginak sartzen diren barruan.
3. Garapen Jasangarrirako Helburuekiko zein lotura duen.
4. Parte hartzen duten gazteen hezkuntza-premiak zein diren.
5. Lantzen diren hezkuntza-helburuak eta gaitasunak zein diren.
6. Ikaskuntza-jarduerak.
7. Egutegia.
8. Gazteen parte-hartzea.
9. Sareko lana.
10. Ospakizuna.
11. Zabalkundea.
12. Beharrezko baliabideak.
13. Ebaluazioa.
14. Bideoa.

Atal horietako bakoitzak azalpen bat du. Azalpen hori Ikasketa+zerbitzuko sarien webean aurkitu dezakezu:

<https://aprendizajeservicio.com/bases2022CAS> (gaztelaniaz)

Para redactar un proyecto de ApS

1. Proiektuaren sinopsia

Proiektuaren sarrera laburra eta argia izan behar da, 150 hitzekoa gehienez. Labur-labur deskribatuko da zein arazori ekin nahi zaion, neska-mutilek zein zerbitzu egin duten eta zer ikaskuntzari loturik, sareko lana aipatuz.

2. Zein gizarte arazo edo inguruko premia hartuko den aintzat

Labur deskribatzea proiektuak inguruko zein erronka, arazo, urritasun edo premiatan eragiten duen. Horren gainean egin dute lan haur eta nerabe parte-hartzaileek.

3. Zerbitzuaren deskribapena eta zer ataza dituen

Zerbitzuaren azken helburua, zerbitzuaren zeregin nagusiak eta inguruan duen eragina azaltzea, ahal den neurrian, zein emaitza zehatz lortu beharko liratekeen aipatuz.

4. Garapen Jasangarrirako Helburuekiko lotura

Ikasketa+zerbitzuko proiektuari lotuta dauden Nazio Batuen 2030 Agendako GJHak egoki identifikatzea, GJH bakoitzeri lotutako helmugak adieraziz.

5. Gazte parte-hartzaileen hezkuntzako premiak

Proiektuan parte hartzen duen taldearen aukerak eta mugak deskribatzea: interesak eta motibazioak, gatazkak kudeatzeko modua, jarrerak eta balioak, ingurumeneko eta, oro har, gizarteko arazoekiko sentiberatasuna, etab.

6. Hezkuntzako helburuak eta landu diren gaitasunak

Hezkuntzako helburuak edo gaitasunak argi aurkeztea, lehenengo irakurketan ulertu daitezen.

7. Ikaskuntza-jarduerak

Labur-labur deskribatzea zerbitzuari zuzenean lotutako ikaskuntza-jarduera nagusiak.

8. Egutegia

Proiektuaren garapenaren denborazko eskema bat aurkeztea, faseak adieraziz, ikasketaren eta zerbitzuaren alderdiak jasota.

9. Gazteen partaidetza

Neska-mutilen protagonismoa nola aurreikusi den deskribatuko da, adinaren eta egoeraren arabera.

10. Sareko lana

Proiektuan parte hartu duten erakundeen arteko sareko lana azalduko da, ikuspegi komunitario eta elkarrekikotasunetik (inplikaturako alderdi guztiek jasotzen dute onura).

11. Ospakizuna

Proiektuaren emaitza nola ospatu zen erakutsi: jaia, aitortpeneko ekitaldi bat hurrei edo gazteei eta erakunde parte-hartzaileei...

12. Zabalkundea

Proiektua inguruan edo familiei zer bitarteko eta estrategiaren bidez eman zitzaien ezagutzera azaltzea, eta zer oihartzun izan duen herrian eta komunikabideetan.

13. Beharrezko baliabideak

Laburbildu, ahal den neurrian, zein baliabide zehatz jarri diren martxan proiektuan, bai ikastetxean eta bai parte hartu duten gizarte erakundeen aldetik.

14. Ebaluazioa

Proiektu osoaren ebaluazio orokorra aurkeztuko da eta planteatu diren hezkuntza-helburuetatik zein mailatan bete diren.

15. Bideoa

Bideoaren asmoa da proiektua erakustea, batez ere nola jarri den praktikan; parte-hartzaileek nabarmendu nahi dituzten alderdiak bildu; eta proiektu zehatzaren zabalkundean lagundu, baita ikasketa+zerbitzuaren zabalkundean ere, oro har.

Eskolak betetzen

Lanbide Heziketako hainbat maila eta arlotako ikasleak Marokoko hegoaldera joan dira bertako biztanleak ahalduntzeko, eskuratu dituzten ezagutzekin: ostalaritza, fabrikazioa, lorezaintza, soldadura, lehen sorospinak, gizarteratzea, animazio soziokulturala, kirol jarduerak... Horrela, eskola-esparru bat berritu eta mediku-kontsultategi bat sortu eta hornitu dute.

Casa Escuela Santiago Uno, Salamanca,
Gaztela eta León

(2018ko Ikasketa+zerbitzuko saria. Garapenerako lankidetzak. EDUCO)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-cooperacion-al-desarrollo/>

Osasuna guztiontzat da

Gazteek aho-hortzetako higienari eta dietetikari buruzko ezagutza aplikatu dituzte osasun-tailerrak planifikatzean eta gauzatzean, pertsona kalteberak artatzen dituzten erakundeentzat, haien beharren arabera. Sarean lan egin dute ACCEM Valencia, Valencia Acoge, Fundación Proyecto Vivir, CAI Asindown, Centro de Día Manantial eta Universidad Popular Rovella erakundeekin batera.

Instituto Técnico Profesional Pax, Valentzia,
Valentziako Erkidegoa

2018ko Ikasketa+zerbitzuko saria. Finalista:

<https://www.aprendizajeservicio.net/finalista/>

Unibertso espazioa



Erizaintzako Zainketa Lagungarrietako Teknikari ikasleek tailer praktikoak prestatu eta egin dituzte San Juan de Dios Zentroan artatutako helduen kolektibo batentzat. Tailerren helburua izan da desgaitasun intelektuala duten pertsonen osasuna sustatzea, beren burua zaintzearen bidez, eta edukiak eta metodologia haien beharretara egokitu dituzte.

Colegio Safa-Grial. Valladolid.

(2019ko Ikasketa+zerbitzuko saria. Ohitura osasungarriak sustatzea eta gizentasuna prebenitzea. DKV. Osasuna eta Seguratasuna)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-promocion-de-habitos-saludables-y-prevencion-de-la-obesidad-3/>



5. IKASKETA+ZERBITZUA ETA ZEHARKAKO GAITASUNEN GARAPENA

Zeharkako gaitasunak

Zeharkako gaitasunak enplegurako eta herritar arduratsu gisa bizitzeko beharrezko trebetasunak dira, eta garrantzitsuak dira pertsona guztientzat, lanbide-espezialitatea edozein dela ere.

Gaitasun horiek beharrezkoak dira lanpostu bat lortzeko, mantentzeko eta profesional gisa aurrera egiteko, baita gizartea hobetzen duen herritartasun aktiboa, arduratsua eta antolatua garatzeko ere.

Hainbat autore zeharkako gaitasun horiek identifikatzen saiatu dira. Gaitasun horien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Taldean lan egitea
- Egokitze gaitasuna edo aldaketarekiko tolerantzia
- Enaitzei begirako orientazioa
- Kudeatzeko eta planifikatzeko gaitasuna
- Arazoak konpontzea
- Komunikatzeko trebetasunak
- Ekimena eta proaktibitatea
- Sormena
- Etengabeko ikaskuntza



Aurelio Villak eta Manuel Pobletek (zuzendariak), "Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza" lanean⁶, aztertutako hogeitaz hiru erakunde baino gehiagoren artean sarriren agertzen diren 13 gaitasunak bildu dituzte. Gaitasun horiek maiztasun handienetik txikienera agertzen dira aztertutako zerrendetan:

1. Idatzizko komunikazioa eta aurkezpena: lana eta txostenak idaztea, ortografia, gramatika, apunteak hartzea...
2. Ahozko komunikazioa eta aurkezpena: entzutea, ahozko adierazpena, telefonoa erabiltzea...
3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
4. Informazioaren kudeaketa: informazioaren tratamendua eta maneia.
5. Talde lana.
6. Arazoak konpontzea.
7. Ikasten ikastea: ikaskuntza eraginkorra, bizitzan zeharreko ikaskuntza, ikaskuntza-estrategiak, norberaren ikaskuntza-trebetasunez jabetzea.
8. Interakzio soziala: giza harremanetarako gaitasuna, pertsonen arteko harremana, pertsonen arteko ulermena, harremanetarako gaitasuna...
9. Ikaskuntza eta elkarlana: besteekin lan egitea, lan kooperatiboa.
10. Norbere buruarengan konfiantza izatea.
11. Denboraren kudeaketa.
12. Sen etikoa: etika, konpromiso etikoa.
13. Erabakiak hartzea: zentzuz jokatzeko gaitasuna.

⁶ VILLA A. eta POBLETE, M. (zuzendariak) (2007): *Aprendizaje basado en competencias. Una propuesta para la evaluación de las competencias genéricas*. Deustuko Unibertsitatea-Ediciones Mensajero. Bilbao.



TKNIKA Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren zentroa da⁷. Ikastetxe horrek planteatzen du ikasleek lan-ingurunera egokitzeko izan behar dituzten ezaugarriak direla zeharkako gaitasunak, beharrezko ezagutza teknikoez haragokoak.

TKNIKAK Euskadiko Lanbide Heziketan lan egiteko proposatutako zeharkako lau gaitasun-bloke identifikatzen ditu:

Pertsonala:

- Autonomia
- Inplikazioa
- Ekimen sortzailea

Komunikazioa:

- Ahozko komunikazioa
- Idatzizko komunikazioa

Digitala:

- Informazioan eta datuetan alfabetatzea
- Komunikazioa eta lankidetzatza
- Eduki digitalak sortzea
- Segurtasuna
- Arazoak konpontzea

Elkarlanekoa:

- Talde lana
- Arazoak konpontzea
- Erabakiak hartzea



⁷ <https://tknika.eus>

Zeharkako gaitasunak eskuratzeko prozesuak "Izaten ikastea" eta "Elkarrekin bizitzen ikastea" hezkuntza-helburu osagaiak biltzen ditu. Emozioen kudeaketa, motibazioa eta beste pertsona ezagutzea ere sartzen dira: sentimenduak, egoera pertsonala... Hori guztia autoestimua-rekin eta gogo-al-darte positiboarekin dago lotuta, ongizate emozional pertsonala eta kolektiboa lortzen baitute.

Azken batean, gaitasun horiek ekintzaren eta ekintzari buruzko hausnarketaren bidez lortzen dira. Ikasleak zeharkako gaitasunak taldean praktikan jarri behar dituzten egoeretan jartzen dira eta lortu nahi den helburua, aurrera eraman nahi den proiektua edo konpondu nahi den erronka ebatzi behar duten egoeretan jartzen dira.

Ikasketa+zerbitzua, zeharkako gaitasunak lantzeko proposamena

Ikasketa+zerbitzua ekimen edo ekintzailetza soziala da eta zeharkako gaitasunak praktikan jartzeko eta horiei buruz hausnartzeko testuinguru asko eskaintzen dizkigu.

Konplexutasuna ikasteak esan nahi du ikasleek egoera konplexuei aurre egiteko egoeran jartzea, haien garapenari dagokion mailan, eta eraginkortasunez aurre egiteko estrategiak ematea: arazoa aztertzea, esku hartzeko estrategia hautatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.

Ikasketa+zerbitzuak pentsamendu estrategikoa garatzeko aukera ematen du, benetako egoera batetik abiatuta eta osagai guztiak bilduta: errealitatearen analisia, sortzea, planifikatzea, proiektu baten garapena eta ebaluazioa.

Gainera, ikasle-talde bakoitzaren egoeretara egokitzen da, edozein maila edo modalitatetan.

Zeharkako gaitasunak lortzeak ikasten duen pertsonaren rol protagonista eskatzen du: beharrezkoa da ikaskuntza prozesuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan inplikatzeko.

Ikasketa+zerbitzuan, **ikasleak** komunitate bateko parte direla eta hobekuntzan parte hartzeko aukerak dituztela jabetzen dira, bizi izandako esperientziaz haratago, eta herritar izaera hartzen dute.

Ikasleek informazio garrantzitsua ere bilatzen eta hautatzen dute, taldean lan egiten dute erabakiak hartzeko eta arazoak ebazteko, esku-hartzea planifikatzen, gauzatzen eta ebaluatzen dute, beren jakintza emanez eta berriak eskuratuz.

Talde kooperatiboetan aritzeak lana berdinen artean partekatzea ahalbidetzen du eta ikaskuntza aktiboa eta eraikitzailea sustatzen du. Gainera, pertsonen arteko komunikazioa errazten du, eta ikasleei konfiantza ematen die beren buruarengan eta ikaskideengan.

Komunitateari zerbitzu bat emateak benetako zentzua hartzen du taldea osatzen duten pertsona guztiek parte hartu dutenean hura garatzeko fase guztietan.

Ikasketa+zerbitzuak gizarterako garrantzizko gaiak identifikatzen laguntzen digu, gaitasun teknikoak aplikatzeko eta zeharkako gaitasunak aukera guztietan praktikan jartzea ahalbidetzeko.

Proiektuen ugaritasunak antolaketa egitura desberdinak ezagutzea eta horietan parte hartzea errazten du. Hainbat taldetan aritzeko aukera ematen du, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo lan egiteko, bere taldeko eta gelakoekin eta beste maila batzuetakoekin, familiarekin edo auzokideekin.

Ikasketa+zerbitzuak ikasleei ahalduntzen laguntzen die eta pertsona gisa garatzen ikasten dute, beren interes pertsonal eta komunitarioko proiektuetan parte hartuz.

Gainera, ikaskideekin elkarlanean lan egiten ikasten dute, helburu komun bat lortzeko eta gizartearekin konpromiso bat garatzeko, hartara identifikatutako arazoak konpontzeko.

Ikasketa+zerbitzuak, ikaskuntzari esker, hainbat eragile eta jakintza profesional sar ditzake zeregin akademikoan. Berariazko jakintza ematen duen proiektu batean integratzen laguntzen du eta, horrela, ikasleen ikerketa-lana aberasten du edo gizarte esku-hartzerako baliabideak eta egitura ematen ditu.





Piktatu ipuin bat

Gizarte Integrazioko Heziketa Zikloko bigarren mailako ikasleek hainbat jarduera diseinatu eta ezarri dituzte, Sebastián Burgos Hezkuntza Bereziko Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleentzat piktogramak (marrazkiz ordezkaturako hitzak) dituen ipuin-liburutegi bat sortzeko. Ipuin kontalaritzako jarduerak ere egin dituzte, gaitasun emozionala lantzeko.

Colegio Rodrigo Giorgeta, Valentzia
(2019ko Ikasketa+zerbitzuko saria. Irakurzaletasuna sustatzea. EDB)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-fomento-de-la-lectura-2/>

Print 3D: metroaren plano ukigarriak

Informatikako eta Komunikazioetako Oinarrizko LHko 1. mailako ikasleek Valentzia hiriko metroaren plano ukigarrien bertsio bat diseinatu eta inprimatu dute 3D teknologiarekin, itsuei metroko irisgarritasuna errazteko. Jarduera hau Erasmus+ proiektu baten esparruan garatu da. Proiektu horretan Europako hainbat erakundek parte hartu dute.

IES Conselleria, Valentzia.
(2019ko Ikasketa+zerbitzuko saria. IKTetara bideratutako ikasketa+zerbitzua. ESEMTIA)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-aprendizaje-servicio-enfocado-a-las-tic/>

Belaunaldien arteko proiektua

Adimen-urritasun arina edo adimen mugatua duten 18 eta 25 urte bitarteko gazteek belaunaldien arteko proiektu bat egin dute DomvsVi San Bernardo eguneko zentroko adinekoekin. Jardunaldi partekatua antolatuta dituzte, hainbat jarduerarekin: musika partekatzea, Gabonetako txartelak sortzea, entzute aktiboko eta memoriako tailerrak, sukaldeko errezetak egitea, bisita gidatuak...

A la Par Fundazioa, Madril.
(2019ko Ikasketa+zerbitzuko saria. Hezkuntza ez-formala. Arci Nature)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-aprendizaje-servicio-en-educacion-no-formal/>



6. IKASKETA+ZERBITZUA ETA LAN- ETA HERRITAR-ORIENTAZIOA

Lan-orientazioa gaitasun pertsonalak, sozialak eta **lanekoak** garatzen laguntzeko prozesu bat da, pertsonari gaitasun pertsonalak, sozialak eta lanekoak garatzen laguntzen diona, lanpostu bat lortzeko eta mantentzeko. Pertsonaren lan-bizitzan eta garatzen den ingurunean elkarreragiten duten prozesu sozio-laboralen ikuspegi integrala sustatzen du.

Orientazio zibikoa edo herritar-orientazioa LHko ikasle gazteen taldeei laguntzeko prozesu bat da, gizartean duten rola ezagutzeko eta pertsonen, taldeen eta komunitateen bizi-baldintzak hobetzeko duten inplikazioan parte hartzeko.

Bi prozesu horiek aldi berean sortzen dira, Lanbide Heziketako zikloetan lan-errealitatera eta lantokia dagoen komunitatera hurbiltzen baitira.

Era berean, beren gaitasun teknikoak kausa sozialen zerbitzura jar ditzaketela ikusteko laguntza da eta, horrela, beren garapen tekniko profesionala eta langile izatearen dimentsio zibikoak edo sozialak osa ditzakete.

“Laneko prestakuntza eta orientazioa” (LPO) prestakuntza-moduluak lanpostuan sartzearekin eta lan-esperientzia kudeatzearekin oso lotuta dauden gaiak jorratzen ditu. Hauek dira gai nagusiak:

- Laneratze-prozesua eta bizitzan zeharreko ikaskuntza.
- Lantaldeak.
- Gatazken kudeaketa.
- Lan-kontratuak.
- Hitzarmen kolektiboak.
- Soldata eta Gizarte Segurantzaren prestazioak.
- Laneko arriskuak: sarrera eta identifikatzea.
- Prebentzioaren kudeaketa.

LPO modulua garrantzitsua da, laneratzeko prestakuntza eskaintzen duelako, lan-harremanetan zentratzen delako eta oso heterogeneoa delako.

Modulu horrek lanbide-munduan, edozein lan-motatan eta lanbideko bizitza osoan hobeto txertatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eskaintzen dizkie ikasleei. Honako indargune hauek nabarmenduko ditugu:

- Ikaslea lan-harremanen munduan sartzen du.
- Segurtasunean eta arriskuen prebentzioan trebatzen du.
- Lan-arloko legeriaren inguruan gaitzen du.
- Atzerrian ikasteko ibilbideak gomendatzen ditu.
- Gatazkak negoziatzen eta konpontzen hasten da ikaslea.

Hauek dira orientazioaren beste eduki batzuk:

Orientazio pertsonala pertsona bati laguntzeko prozesu bat da, bere burua eta mundua ondo ezagutu ditzan, bizitzako arazoak konpontzeko gai izan dadin.

Bokazio-orientazioa prozesu psikologiko eta pedagogikoa da, lanbide **jakin bat aukeratzen laguntzen** saiatzen dena, ikasleen **motibazio, gaitasun eta jarrerekin bat datorrena**. Asmoa da ikasleek beren pentsamendu kritikoa kontuan hartuta, ebaluatzeko dituzten aukera guztien artean zein diren onenak ezagutzen hobetzea.

Prozesu horren helburua da ikasleen benetako interesa ezagutzea eta lan-ingurunearekiko ikaskuntza erraztea, lan-munduan sartzeaz gain.

Bokazio-orientazio horren helburua da ikasle bakoitzak lanbidearen dimentsio desberdinak ezagutzea, baita bere aurrerapen pertsonala eta etorkizun profesionala aztertzea ere, heziketa-ziklo batetik goi-mailako beste batera igarotzean, eta, gainera, bere prestakuntza-ibilbidea unibertsitatean osatzeko aukera izatea.

Orientazio zibikoak edo herritarrak "garapen pertsonalean eta herritartasun demokratiko eta baketsuan laguntzea" du helburu. Gainera, ikasleei herritartasun aktiboaren barruko rola ezagutzen laguntzen die, beren gaitasun pertsonalak eta profesionalak gizartearen zerbitzura jartzen dituztelako. Eta komunitate baten antolaketan eta kudeaketan parte hartzen duten pertsonen herritar-jarduerak ezagutzen laguntzen die ikasleei. Adibidez, elkarteak, kolektiboak, fundazioak, GKEak...

Ikasketa+zerbitzua, ekintza-hausnarketatik orientatzeko estrategia

Ikasketa+zerbitzua hezkuntza-proposamen nahiko betea da eta orientazio-prozesuaren hainbat etapa hartzen ditu.

BOKAZIO-ORIENTAZIOAK aukera ematen dio ikasle bakoitzari lanbidearen alderdi interesgarrienak identifikatzeko, lanbidea espezialitate jakin batetik bideratzeko. Baita gradu batetik bestera igarotzean edo unibertsitatera sartzean egiten duen prestakuntza-ibilbideari buruz hausnartzeko ere, gaitasun profesionalak komunitateari zerbitzu emateko proiektu batean aplikatu ondoren.

Ikasketa+zerbitzuko ikaskuntzako proiektuak praktikan jartzean **EKITEN IKASTEN DU** ikasleak, sormena, ekimena, etorkizuneko ikuspegia, konpromisoa, esparru ugartasuna, berrikuntza, helburuak izanik jardutea, hau da, lidergoa eta konbentzitzeko gaitasuna jartzen ditu martxan.

GARAPEN PERTSONALERAKO ORIENTAZIOAK AUTOEZAGUTZAKO estrategiak garatzeko aukera ematen dio ikasleari. Errealitate desberdinak bizi dituzten beste pertsona batzuegana hurbiltzeko, ekimenak izateko, komunikatzeko eta hitz egiteko, irudimena izateko, ideiak proposatzeko eta normalean egiten ez dituzten gauzak egiteko gai direla konturatzen laguntzen du.

Bestalde, ikasketa+zerbitzuko ikaskuntzako proiektu batean inplikatzeko diren ikasleek zerbitzu solidarioa eskainiko dieten beste pertsona eta komunitateekin **ENPATIA** garatzen ikasten dute: bestearekin sentitzeko gaitasuna esperimentatzen dute; beste pertsonen erreakzioak, emozioak eta iritziak hobeto ulertzeko eta desberdintasunetatik harago joateko gaitasuna dute; bestearen lekuan jartzen ikasten dute, eta beste pertsonaren ikuspegitik ulertzen, jarduten eta laguntzen saiatzen dira.

HERRITARTASUN AKTIBORAKO ORIENTAZIOARI esker, ikasleek herritartasun arduratsuaren ikuspegia izan dezakete, komunitateko pertsona ahulenei **ELKARTASUNA** abiapuntu hartuta. Ikasleak gai dira zailtasunak dituzten kolektiboak defendatzeko arrazoiekin bat egiteko, beren denbora eta ezagutzak pertsona ahulenei partekatzeko, gaitasun profesionalak ikuspegi solidarioarekin aplikatzeko.

Halaber, gai dira gizarte-arriskuan dauden pertsonen eta kolektiboen arazoak ulertzeko, ezagutzeko eta partekatze, proiektu solidario bat egiteko talde bat osatzeko, justizia sozialaren kausari modu praktikoa eta zehatzean laguntzeko.

GIZARTEA ERALDATZEKO GAITASUNA, gizarte motibazioa, jasangarritasuna, arriskuak hartzea eta arazoak ebaztea, autonomia eta ekimen pertsonala, autokonfiantza, optimismoa, planifikatzeko gaitasuna praktikan jartzen du.

Ikasketa+zerbitzuko proiektu batean ikasleen protagonismoa oso garrantzitsua da. **GAZTE PROTAGONISMOAREN** ideiak eskubideen eta erantzukizunen subjektutzat hartzen du gazteria, eta bere historia pertsonala eta kolektiboa onartzen du. Protagonismoa izateko, oso garrantzitsua da pertsonak parte hartzea, proposamen zehatz baten diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan parte hartzea baitakar.

LANEKO ETA HERRITARTASUNeko ORIENTAZIOAREN ezaugarria proiektuaren garapena sustatzeko, gaitzeko eta errazteko aukera da. Pertsonen eta gazte-taldearen gaitasunak sustatzen eta etorkizunera proiektatzen laguntzen du.



Esperientzia landaketan

Nekazaritzako eta Lorezaintzako Oinarrizko LHko 2. mailako ikasleek adinduek jarduerak gehitzeko egin dieten eskaera entzun, eztabaidatu eta onartu dute. Ondoren, lanean hasi dira eta landatzeko 7 mahai eraiki dituzte adinekoren udal zentro baterako egokitu.

Proiektu honetan Iruñalde Adinekoren Zentroak eta Berriozarreko Udalak lagundu dute.

LANTXOTEGI ELKARTEA, BERRIOZAR (NAFARROA)

(2021eko Ikasketa+zerbitzuko Saria. Adinekoei laguntzea. La Caixa Fundazioa)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-apoyo-a-las-personas-mayores-2/>

Super Zu erronka

Arropa Konponketetako Hasierako Kualifikazio Programako ikasleek Covid-19aren pandemian osasun arloko langileen egoera aztertu dute. Ondoren, poltsiko solidarioak diseinatu eta egin dituzte, poltsikoak antolatzeak, osasun-langileei energia eta positibotasuna itzultzeko. Proiektu honetan lagundu dute Pablo Gargallo BHIk, Casa de Juventud Casco Viejo, Zaragozako Lozano Blesa Ospitale Klinikoak, San Pablo Osasun Zentroak, San Pablo auzoko Munduko Medikuek eta Quirón Floresta Klinikako Egunko Ospitaleak.

FEDERICO OZANAM FUNDAZIOA. ZARAGOZA

(2021eko Ikasketa+zerbitzuko saria. Ikasketa+zerbitzua koronabirusaren garaian. DKV Aseguruak)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-aprendizaje-servicio-en-tiempo-de-coronavirus-2/>

7. IKASKETA+ZERBITZUA, LANBIDE HEZIKETAREN PEDAGOGIAKO PROIEKTU GISA PENTSATUA

Proiektukako lana oso presente egon da urteetan zehar Lanbide Heziketaren garapenean. Prestakuntza-modulu bati lotutako proiektuak izan daitezke; beste batzuetan, berriz, modulu arteko edo diziplinarteko proiektuak dira. Zeharkako gaitasunetan oinarritutako proiektuak ere garatzen dira eta, beste batzuetan, ikasteko proiektu integratuez hitz egiten da.

Motibazio-mailak biderkatu egiten dira proiektu horiek lanbideko gaitasunak hurbileko edo urruneko premia erreal baten zerbitzura jartzen dituztenean. Izan ere, herritartasun globalaren ikuspegitik, ikasleek beren ikaskuntzen baliagarritasuna eta egoerak konpontzeko duten gaitasuna frogatzen dute.

Ikaskuntza trebeak zentzua du bizitzako arazo praktikoko bat konpontzeko aukera ematen badigu, gertakari batzuk zergatik eta zertarako gertatzen diren jakiten saiatzean eta gertakariei azalpena bilatzean eta errealitateari berari ekitean hura eraldatzeko.

Proiektukako ikaskuntzak estrategia bat eskaintzen du. Hartara, ikaskuntzak esanahia hartzen du eta bizitza errealeko gaiekin erlazionatzeko modua ematen du. Eta herritarren, komunitatearen eta bertan bizi diren giza talde berezien errealitatea aldatzen eta bizi-baldintzak hobetzen saiatzen da.

Proiektukako ikaskuntzak hezkuntza-taldearen konpromisoa eta motivazioa garatzen ditu, erronka konplexuak diziplina arteko ikuspegi batetik proposatzean eta lan kooperatiboa suspertzean. Lanbide Heziketako diziplinartekotasuna moduluen arteko lanean gauzatzen da: ikaskuntzako proiektu integratuez ari gara.



Ikaskuntza proiektu integratuak

Goian aipatu ditugun arazo horiek garapen profesional, pertsonal eta sozialari lotuta daude. Eta horiek sortuko dituzte esku-hartzeak, gizarteratzeko eta laneratzeko oinarritzko gaitasun profesional eta psikosozialetatik abiatuta.

Horrela, integrazioa proposamen metodologiko gisa sortzen da, ikaskuntza-edukiak elkarri lotuta aurkezteko premiari erantzuteko, prestakuntza-alderdiei buruzko lanaren bidez funtzionaltasuna lortzeko.

LHko ikastetxeetako proiektu horiek ikastetxearen proiektuan sartzen dira eta aukera baliotsuak eskaintzen dituzte.

Ikaskuntza proiektu integratuek, ikaskuntzak integratzeko pedagogia gisa, aukera ematen diote...

- ataldeari ikaskuntzen arteko loturak sortzeko eta bizitza profesionala eta herritarren bizitza eguneroko bizitzarekin lotzen dituzten ikaskuntzak lotzeko.
- hezitzaileari pertsona aktiboak eta konprometituak prestatuko dituen eta eskuratzeak eta gaitasunak balioetsiko dituen pedagogia praktikatzeko.

Ikasketa+zerbitzua, Lanbide Heziketako gizarte-onurarako proiektua

Proiektuak eraikitzeak proposatzen du ekintza-hausnarketa prozesuak ikuspegi integratu batetik garatzea, gazteen eta gizarte-eragileen arteko ezagutza- eta elkartasun-sareak ezartzean balioak eraikitzea eta ziurtatzea ahalbidetzeko.

Ikasleek bizitzako eskakizun eta erronkei aurre egitea errazten duten gaitasun profesionalak, trebetasunak edo abileziak ikastea sustatzen du. Halaber, munduari begiratzea eta haren oinarritzko premiekiko eta prosozialtasunarekiko elkartasuna sustatzen du, pertsonen arteko konfiantzazko esperientziak errazten ditu, elkarrekin aritzeko gaitasuna garatzen du, kontzientzia zibikoa eta etikaren balioak sustatzen ditu.

Ikasketa+zerbitzuak aukerak ematen dizkio lanbide-hezkuntzari:

Ikasteko

- Proiektu baten fase guztiak definitzen ditu, hasieratik amaieraraino.
- Ikaskuntza esanguratsua errazten du, aplikazio erreal praktikoa delako.
- Hausnarketarako eta autoebaluaziorako aukerak ematen ditu.
- Ebaluazio edo balorazio jarraitua eta integratua ahalbidetzen du.

Ikasleentzat

- Lanbide-heziketako ikasleen protagonismoa sustatzen du, banaka eta taldean.
- Zereginen testuingurua eta prozesuak ikertzen hasten dira.
- Ikastetxeko kide izatearen sentimendua sustatzen du.

Komunitatearentzat eta ikastetxearentzat

- Ikasleek herritar gisa parte-hartzea bultzatzen du.
- Mundu errealeko arazoei heltzen diete.
- Interes eta behar komunak lotzen dituzte, produktu eta zerbitzu partekatuak sortzen baitituzte.

Batez ere, erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan, proiektukako ikaskuntzak hainbat prestakuntza-modulutako lanbideko gaitasunak erlazionatzen laguntzen du, eta komunitate jakinen zerbitzura dagoen ikastetxearen proiektu bat eratzen du.

Oinarrizko Heziketa Zikloetan, ikasketa+proiektu integratuak aukera bat dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzerik izan ez duten ikasleek beren erabilgarritasuna eta komunitatean duten aplikazioa ezagutzeko eta aldaketa sozial eta pertsonalaren protagonista ere izan daitezkeela jabetzeko.





GINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO ikasketa+zerbitzuko proiektu bat

Proiektua: PRESTATU DEZAGUN JANARIA | Oinarrizko lanbide heziketako 2. maila. Ostalaritza | Peñascal Kooperatiba, Bilbao

GIZARTE ARAZOA EDO INGURUNEAREN BEHARRA

Peñascal Kooperatibako Montaña ikastetxeko Oinarrizko Lanbide Heziketako 2. mailako ikasleek euskal nerabeen elikadura-ohiturei buruzko lanak aztertu dituzte eta, horrela, elikadura osasungarriak duen garrantziaz jabetu dira.

Inkestan jasotako datuek honako hau adierazten dute:

- Nerabeen % 40k bakarrik uste du plazer bat dela jatea bera.
- % 78k egunean hiru otordu egiten ditu, eta % 9k baino zertxobait gehiagok inoiz ez.
- % 75ek egunero gosaltzen du, eta % 14k aitortzen du ez duela inoiz gosaltzen.
- Gosarian, % 20k fruta hartzen du, % 38k zerealak eta % 85ek esnea edo esnekiak.
- Nerabeen % 22k ez du ezer hartzen goiz erdian.
- % 29k ez du inoiz askaririk egiten.
- Gure nerabeen % 34k bakarrik behar du 10 minutu baino gehiago gosaltzeko.
- Neraberik gehienek etxean gosaltzen eta afaltzen dute, baina % 42k bakarrik gosaltzen dute familian, eta % 61ek berak prestatzen du gosaria.
- Nerabeen % 21ek noizbait dieta bat egin dute pisua galtzeko.
- % 45ek denetarik jaten dute, gizontzen duten ala ez pentsatu gabe.
- % 29k argaltzeko ariketa egin du.

Bestalde, inkesta bat egin da gertuko institutuetao nerabeen artean, Gasteizko EHuko irakasleen eskolako eta Vital Kutxaren Gizarte Ekintzaren azterlanaren ondorioa baieztatzeko.

Inkesta hori izan da ikasketa+zerbitzuko proiektuaren oinarria. Ikasleek ikasgelan eta sukaldaritza-tailerrean ikasi behar dute elikagai osasungarriei buruz, gero DBHko 2. eta 3. mailako ikasleei modu esanguratsuan transmititu ahal izateko.

ZERBITZUAREN DESKRIPTZIOA ETA ZER ZEREGIN DITUEN

LHko ikasleek DBHko 2. eta 3. mailako ikastetxeetako nerabeekin elikadura osasungarriari buruzko tailerrak dinamizatzea.

Honako zeregin hauek egin dira:

1. Ikerketa.
2. Irakurketa eta eztabaida.
3. Errezeta osasungarriak prestatzea.
4. Laguntza-materiala.
5. Trebetasun sozialetan trebatzea.
6. Tailerra eskaintzea.
7. Ebaluazioa Montaña ikastetxean.
8. Ospakizuna Montaña ikastetxean.
9. Proiektuaren garapeneko argazkiekin bideo bat egitea eta material guztiarekin txosten bat osatzea.



GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIKO HARREMANA

GJH 2: GOSEA: Gosetea amaitutzat ematea, elikadura segurtasuna lortzea eta nutrizioa hobetzea, eta nekazaritza jasangarria sustatzea.

“2.2. 2030erako, malnutrizio modu guztiei amaiera ematea, baita, beranduenez 2025ean, 5 urtetik beherako haurren hazkundearen eta emaziazioaren atzerapenari buruz nazioartean adostutako helburuak lortzea ere, eta nerabeen, haurdun dauden emakumeen eta bularreko haurren eta adinekoen nutrizio-beharrei heltzea.”

GJH 3: OSASUNA ETA ONGIZATEA: Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietakoen ongizatea sustatzea.

3.5 DROGAK ETA ALKOHOLA “Substantzia adiktiboen gehiegizko erabileraren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desagokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.”

GJH 12. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK. Kontsumo eta ekoizpen jasangarriko modalitateak bermatzea.

12.5 HONDAKINAK PREBENITZEA, MURRIZTEA, BIRZIKLATZEA ETA BERRERABILTZEA. “Hemendik 2030era, hondakinen sorrera nabarmen murriztea, prebentzio, murrizketa, birziklatze eta berrerabilpen jardueren bidez.”

12.8 GARAPEN JASANGARRIRAKO HEZKUNTZA. “Hemendik 2030era bitartean, mundu osoko pertsonak garapen jasangarriko eta naturarekin harmonikoak diren bizimoduetakoko informazio eta ezagutza egokiak dituztela ziurtatzea.”

PARTE-HARTZAILEEN HEZKUNTZA PREMIAK

Gure ikasleak funtsezko gaitasun jakin batzuk (komunikazioa, enpatia, talde-lana, berdinen arteko harremana...) garatu behar dituzten egoeretan jartzeko premia gisa planteatzen da proiektu hau, baita elikadura osasungarriari buruzko ezagutzak lortzea eta, aldi berean, autoestimua eta ekimen indibiduala hobetzea. Horretarako, garrantzi berezia ematen zaio komunitate zentzuari eta jendeak hartu beharko lukeen zereginari. Ikasketa+zerbitzua, kasu honetan, baliabide egokia da gaitasun horiek lantzeko.

LANTZEN DIREN HEZKUNTZAKO HELBURUAK ETA GAITASUNAK

- Bizi diren munduaren ikuspegi zabalagoa izatea.
- Gizartearen erronkak eta arazoak eta haien zergatiak eta ondorioak sakonago ezagutzea.
- Proiektuak egitearekin lotutako trebetasunak garatzea: planifikatzea, kudeatzea, zabaltea, ebaluatzea...
- Autonomia pertsonala errazten duten balioak garatzea: autoestimua, ahalegina, konstantzia, autokritika, frustrazioarekiko tolerantzia...
- Balioak barneratzea eta koherentzia pertsonala hobetzea: elkartasuna, erantzukizuna, justizia, berdintasuna...
- Taldean lan egiteko gaitasunak hobetzea: hitz egitea, adostea, amore ematea, exijitzea...
- Informazioa eta haren iturriak hautatzea, tratatzea eta erabiltzea.
- Aukerak eta mugak aztertzea. Konponbide posibleak eta egingarriak irudikatzea. Irizpide propioarekin aukeratzeko gaitasuna.
- Proiektu baten garapen-faseak ezagutzea. Ekintza bat planifikatzea. Erabakiak hartzea.
- Hizkuntza-komunikazioa hobetzea.
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzea.
- Enpatia-jarrerak garatzea, irakasle-lana eginez.
- Berdinekin lan egitea.
- Berdinekin lan egitea, desberdinak izanik.
- Helburuak planteatzea, gero betetzeko.
- Erantzukizuna hartzea.
- Irakasten ikastea.



IKASKUNTZA JARDUERAK

Ikasgelan

Hainbat talde-dinamika erabili dira proposatzen diren ikaskuntzetarako: Role Playing-a, Phillips 6/6; Brainstorming-a; kasu eta esperientziak lantzea...

- Elikadura osasungarriaren eta osasun orokorraren jarraibideei buruzko jarduerak. Kontuan hartu da zer eboluzio-unetan dauden.
- Ezagutza horiek transmititzeko moduari buruzko irudikapenak.
- Role Playing-a, gure pareekin harremanak izateko eta emango duten zerbitzuaren testuingurura egokitutako formak garatzeko moduari buruz.
- Teknologia berrietako trebetasunei buruzko jarduerak, elikagaiei buruz ikasteko eta, horrela, irakatsi ahal izateko.
- Eskemak egiteko eta erabili beharreko informazioa antolatzeako praktikak, eman beharreko zerbitzurako egokiak diren adierazpenak erabiliz.
- Matematika-jarduerak kalkuluan, neurrietan, hiruko erregelan eta ehunekoetan.
- Irakurtzeko eta ulermena hobetzeko gaitasun lanak.
- Idazketa eta ahazko adierazpena hobetzeko jarduerak. Ortografia, puntuazio-arauak eta testuinguru bakoitzeko adierazpen egokiak azpimarratu dira.
- Jendaurrean hitz egiteari beldurra kentzeko adierazpen praktikak.

Tailerrean

Proiektuko *pintxoak* egiteko praktika zehatzak landu dira:

- Berrikuspen kritikoa, merkatuan aurkitu ditzakegun produktuen kalitateari buruzkoak, benetako esperientzietan oinarrituta.
- Pintxo osasungarriak egiteko talde-sormena erraztuko duen talde-laneko giroa sortzeko jarduerak.
- Irudikapenetan, soziogrametan eta kasuen ebazpenean oinarrituta, autokritika eta kritika eraikitzaileerako gaitasuna lantzea.
- Elikagaiak manipulatzeari buruzko trebetasunen eta ezagutzen inguruko ariketa praktikoak.
- Lana sekuentzietan antolatzeako moduari buruzko ariketa praktikoak, besteek urratsez urrats ikas dezaten.
- Alergenoei buruzko informazioa eta arriskuak saihesteko modua osatzea, Interneteko irakurketa eta kontsulten bidez.

EGUTEGIA

Proiektua 10 saiotan garatu da, hilabetez.

1. eguna: Sarrera eta talde-lana

Elkartasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko eztabaida hasi dugu. Herritarren ekimen eraldatzaileei buruzko bideo esanguratsuren bat jarri dugu. Eztabaida horretatik atera dira ostalaritza-eskola batek gizarteari egin diezazkiokeen ekarpenei buruzko ideiak. Irakasleek gidatuta, proposamenak jaso dira.

2. eguna: Proposamena

Aurreko eguneko eztabaida berreskuratu eta proposamenetako batzuk egokitu dira. Ondoren, ikasleek inguruko eskolei nerabeentzako elikadura osasungarriari buruzko tailerrak eskaintzea proposatu da. Ideia egokitu da eta beharrezko gaitasunak lortzeko jarraitu beharreko gidoia lantzen hasi.

3. eguna: Ikerketa

Sukaldaritzari, Interneti eta orain arte ikastaroan lortutako ezagutzei buruzko apunteen laguntzarekin, ikasleak material lagungarriak sortzen hasi dira: elikadura-piramideak, elikagai osasungarrien zerrenda, sukaldaritza-teknikak, errezetak...

4. eguna: Irakurketa eta eztabaida

Elikadura osasungarriarekin eta nerabezeroarekin lotutako egunkarietako artikulua irakurri ditugu: ohiturak, eratorritako osasun arazoak, elikadura txarraren ondorioak... Eztabaida sortu da, eta puntu garrantzitsuenei buruzko oharrak egin ditugu.

5. eguna: Errezeta prestatzea

1. Ordenagailu-gelan, erabil ditzakegun osagaiei buruzko informazioa bilatu dugu: nutrizio-balioak, osasunerako onurak, prezioa, prestatzeko moduak, alergenak...
2. Guztion artean partekatu dugun informazio horrekin 4-5 pertsonako taldeak egin ditugu, hiru pintxo osasungarri pentsatzeko eta horiei forma emateko: osagaia, kantitateak, elaborazioa, aurkezpena, beharrezko tresnak eta zergatik diren osasungarriak. Zati hori teknologia-gelan egin da, sukaldaritzako irakaslearen laguntzaz.
3. Bila genbiltzan baldintzak betetzen dituzten pintxoak zeintzuk diren erabaki da eta sukaldean proba bat egin da.

6. eguna: Laguntza-materiala

Errezeta eta jarraibide guztiak jaso dira, programa informatiko baten laguntzaz. Transmititu nahi dugun informazioa jasoko duen triptiko bat diseinatu da. Eta euskarara itzuli da.

7. eguna: Trebetasun sozialetan trebatzea

Role playing-aren bidez, lantegiko maisuaren figura landu dugu: ideien garapena, sintetizazioa, dinamizazioa, azalpenen prestaketa, hitzik gabeko hizkuntza, hitzezko hizkuntza... Zerbitzu profesionala emateko behar dugun guztia. Barman-en bezeroa artatzeko apunteetan oinarritu gara.

8. eguna: Zerbitzua

Zerbitzua hau izan da: joan nahi dugun eskolan bertan tailerra ematea.

Horretarako, furgoneta behar den guztiarekin kargatu behar izan dugu, eta mise en place (ostalaritza-zerbitzuaren aurretik doitzea) eskola bakoitzak prestatu duen espazioan muntatu da. Eskola batera baino gehiagotara joan gara, ikasle gehiagok zerbitzua emateko aukera izan dezan.

Hauek dira egun horretako faseak:

1. Furgoneta kargatu eta eskolara joan.
2. *Mise en place*-a prestatu.
3. Eman nahi dugun informazioa errepasatu.
4. Zerbitzua eman (ordubete inguruko saioak planteatu dira)
5. *Pintxoak* denen artean probatu dira, ebaluazio eta ospakizun gisa.

9. eguna: Ebaluazioa Montañon

Zerbitzuko saioa ikasgelan ebaluatu da, gainerako ikaskideekin batera. Horretarako, ebaluazio-gidoia erabili da oinarri. Batez ere, asko hitz egin da zerbitzua eman ez zuten lankideek parte har dezaten.

10. eguna: Ospakizuna Montañon

Ikastaroko azken egunean, ikasketa+zerbitzuko argazki-materiala biltzen duen bideo bat proiektatu da. Musikak lagunduta, diplomak eman dira, programako parte-hartzaileen izenekin.

GAZTEEN PARTAIDETZA

Montañoko Oinarrizko Lanbide Heziketako 2. mailako ikasleekin proiektua definitu ondoren (**irakasleak** izan dira), elikadura osasungarriari buruzko jarraibideak ikasgelan eta tailerrean ikasi dituzte, eta, ondoren, beste eskola batzuetako DBHko 2. eta 3. mailako ikasleei modu esanguratsuan transmititu dizkiete (**laguntzaileak** izan dira). Zehazki, eskola-porroteko esperientziarekin atera diren eskoletako ikasleei transmititu dizkiete. Transmisio horretarako beharrezkoak diren gaitasunak eta ezagutzak ikasteko lehen fasea planteatu da. Lehenik, proiektu solidarioaren eta ekimen horren garrantziaren azalpena eman da. Atal horretan kontzeptuen eta jarreraren prestakuntza egin da, baita zerbitzua arrakastaz garatzeko praktika eta landu diren pintxoak asmatzeko sormena ere.

Bigarren fasean komunitateari zerbitzua eman zaio, kasu honetan ostalaritzarekin edo elikagaien industriarekin zerikusirik ez duten beste eskola batzuetako ikasleei. Beraz, horrelako prestakuntzarik ez dutela ulertu da. Zerbitzu solidarioa saio bakoitzaren ondoren, irakasleekin eta ikasleekin egindako zerbitzu-saioa ebaluatu da eta prestatutako pintxoez gozatu da.

SAREKO LANA

Harreman berezia duten inguruko bigarren hezkuntzako lau ikastetxerekin lan egin da:

- Ellacuría Zurbarán BHI institutua,
- Txurdinaga Behekoa BHI,
- Berrio-Otxoa Ikastetxea,
- Ibaizabal BHI.





OSPAKIZUNA

Ikastaroko azken egunean ikasketa+zerbitzuko argazki-materiala biltzen duen bideo bat proiektatu da. Musiak lagundurik, diplomak eman dira, programan parte hartu duten ikasleen izenekin.

ZABALKUNDEA

Bideoa ikastetxearen webgunean jarri da, eta zerbitzua jaso duten zentroetan informazio-dossier bat prestatu da, horrelako ikasketa+zerbitzuko praktika bat egin nahi duten beste ikastetxe batzuei eskaintzeko.

BEHARREZKO BALIABIDEAK

- Egin diren *pintxo*en fitxak, ikasle hartzaileentzako informazioarekin, prestatzen lagundu dutenen informazioarekin.
- Prestatzeko oinarritzko materialak: ogia, guakamolea, tomatea, otarrainxkak, zitrikoak, mozzarella, gratenean egiteko barazkitxoak, tipula, tomatea, haragi xehatua, arrautza, frutak, txokolate fonduea, limoi azukrea...
- Sukaldeko tresnak: plantxa, tresnak, zartagina, pintxoetarako zotzak
- Plater berrerabilgarriak
- Edalontzi berrerabilgarriak
- Ezpainzapiak
- Mise en *place* materialak garraiartzeko furgoneta: astoak, taulak, mahai-zapiak.

EBALUAZIOA

Zerbitzuko saioa ikasgelan ebaluatu da, gainerako ikaskideekin batera. Horretarako, ebaluazio-gidoia erabili da oinarri. Batez ere, asko hitz egin da zerbitzua eman ez duten ikaskideek parte hartu dezaten.

Datuak:

- **4 eskola publiko** eta pribatu bisitatu ditugu: Txurdinaga Behekoa, Zurbaran BHI, Berrio-Otxoa Ikastetxea, Ibaizabal BHI.
- Elikadura **osasungarriari buruzko 4 tailer** eman ditugu.
- Zerbitzu solidarioko **10 saio** eman ditugu.
- **4 pintxo** osasungarri berri sortu ditugu.
- Eskola arrunteko **200** laguni elikadura osasungarriari buruzko prestakuntza eman diegu.
- Lantzaile horietako bakoitzak eta haien maisuek gutxienez lau pintxo ezberdin egin eta probatu dituzte, guztira **300 pintxo osasungarri**.
- **Oinarrizko Lanbide Heziketako** 2. mailako **60 ikaslek** parte hartu dute, bai ikasketan, bai zerbitzuan.
- Oinarrizko Lanbide Heziketako **10 irakaslek** eta ikastetxeko **idazkari batek** parte hartu dute.
- Metodologia **4** tailerretan aplikatzeko koordinatu gara: sukaldean, zerbitzuan, harategian eta gozogintzan. **4 irakasgaitan**: elikagaiak, informatika, erredakzio tailerra eta tutoretza.
- DBH amaitu gabe eskolatik atera ziren 5 ikaslek haien eskola ohia **bisitatu dute** eta maisu-maistra papera bete dute.
- Oinarrizko Lanbide Heziketako **8 ikaslek** parte hartu dute **irakasle** gisa.

BIDEOA

Ikasleek eurek egindako ikasketa+zerbitzuko argazki-materialaren bideoa.

https://youtu.be/2tp1_rjyKYc



8. IKASKETA+ZERBITZUA, ONURA SOZIALA DUEN ERRONKA

Erronketan oinarritutako ikaskuntza ikuspegi pedagogiko bat da. Ikasleak modu aktiboan inplikatzeko dituen egoera problematikoko erreal, garrantzitsu eta ingurunearekiko lotu bat konpontzeko, eta **erronka** bat definitzea eta irtenbide bat aplikatzea eskatzen du⁸:


“Erronketan oinarritutako ikaskuntzak bizipenetan oinarritutako ikaskuntzan ditu sustraiak, eta ikaskuntza horren funtsezko oinarria hau da: ikasleek ikaskuntza irekiko esperientzietan era aktiboan zenbat eta gehiago parte hartu, hainbat eta hobeto ikasiko dute, jarduera egituratu pasiboetan parte hartzen duteneko ikaskuntzarekin konparatuta. Bizipenetan oinarritutako ikaskuntzak, alde horretatik, egoerei aurre egin behar dieten egoera errealetan aplikatzeko aukerak eskaintzen dizkie ikasleek; beren kabuz ikasten dute, irtenbideak probatzen dituzte eta beste ikasle batzuekin elkarerraginean jarduten dute testuinguru jakin batean (Moore, 2013). Bizipenetan oinarritutako ikaskuntzak ikuspegi holistiko integratzailea du, esperientzia, kognizioa eta portaera bateratzen dituena (Akella, 2010)”.

Erronka jarduera, zeregin edo egoera bat da, ikasleari estimulu eta erronka bat ematen dizkiona burutu ahal izateko.

ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZAN

- Ikasle taldeak benetako arazoetan lan egiten du, ikasten ari diren gaien inguruko jakintza sakonagoa garatzeko. Erronkak berak eragiten du jakintza berria, baita beharrezko baliabideak edo tresnak ere.
- Ikasle taldea benetako irtenbidea behar duen garrantzizko arazo ireki baten aurrean jartzen du.
- Ikasle taldeak irtenbiderik egokiena aztertzen, diseinatzeko eta burutzen du, erronkari irtenbidea emateko haiek eta beste pertsona batzuek ikusi eta neurtzeko moduan.
- Irakasle-taldea coach-a, ikertzailekidea eta diseinatzailea da (BALOIAN, HOEKSEMA, HOPPE eta MILRAD, 2006).

⁸ OBSERVATORIO DE INNOVACIÓN EDUCATIVA. Tecnológico de Monterrey (2015eko urria). Reporte EduTrens Aprendizaje Basado en Retos. Monterrey. Mexico.



Erronketan oinarritutako lankidetzako ikaskuntza (ETHAZI): euskal eredua

Erronkak ikasleei ikaskuntza garatzeko aurkezten zaizkien egoera problematikoak dira. Lanbideko etorkizunean moldatu beharra izango duten errealtatera ahalik eta gehien hurbildu beharko liratekeen egoerak dira.

Erronkak, benetakoak izan daitezten, gelan konponbiderako dinamika oso berezia sortu behar dute, "dibergentzia-konbergentzia" prozesu bat izatea ziurtatu behar dute, hartara, ikasleek alternatiba ugarien ikuspegitik lan egin dezaten. Horrek eragiten du ikasleen oinarritzko gaitasunetan (interpretatu, transmititu, laburbildu, erabaki, etab.) oinarrituta lan egitea.

Egoera problematiko bat erronka bihurtzea, prozesu osoa eta emaitza, egituratuta dago eta ziklo bakoitzeko gaitasun tekniko eta berariazkoetatik abiatzen da. Baita izaera estrategikoa duten zeharkako gaitasunetatik ere: ikasteko autonomia, talde-lana, emaitza bikainetarako orientazioa, etab.

Erronketan oinarritutako ikaskuntzak inguru bat eta une bat sortzen ditu eta, hortik abiatuta, ikasleak bakarka eta taldean lanean hasten dira eta emaitza bat ekoizten dute. Emaitza hori interpretatu egiten da, zerk funtzionatu duen eta zerk ez aztertzen da eta erabakitzen da hurrengo erronkan zer egingo den desberdin, goragoko helburuetara heltzeko.

Ikasketa+zerbitzuko oinarritzko ideiak aurkitu behar dira, baita ezinbesteko giltzarriak ere, erronka bat ikasketa+zerbitzuko delako esateko: "hautemandako gizarte-mailako premia, komunitateari zerbitzu ematea gizarte-mailako premia horri herritar konpromisoaren bidez erantzuteko, gaitasun profesionalak eta eskolako curriculumari lotutako funtsezko edo zeharkako gaitasunak ikastea eta komunitatean parte hartzen duten erakundeekiko sare-lana egitea".

Hausnarketa eta parte hartzea ere alderdi interesgarriak dira ikasketa+zerbitzuko proiektuak garatzeko.

Esparru horrekin topaguneak bilatzen dira "erronketan oinarritutako lankidetzako ikaskuntzan" eta "ikasketa+zerbitzuan". Topagune horiek identifikatutakoan, kontua izango litzateke erronka baten garapeneko pausoak eta ikasketa+zerbitzuko proiektu baten eraikuntza prozesua harremanetan sartzeko.

*ETHAZI metodologiaren barruko ikasketa+zerbitzua **onura soziala duen erronka** izango litzateke. Bestela esanda, erronketan oinarritutako lankidetzako ikaskuntza prozesu bat komunitateari zerbitzu emateko.*

Hortik abiatuta ideiak proposatzen dira, gure erronkek ikuspegi teknologikoak, bizitzan zeharreko ikaskuntzakoak bete ditzaten eta errealtatearen eraldaketak sortzeko eta pertsonen, kolektiboen eta komunitateen premiei erantzuteko.

Ikasketa+zerbitzuko proiektu baten garapena onura soziala duten elkarlaneko erronken metodologietatik abiatuta

TKNIKAk, EAEko Lanbide Heziketan Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroak, prestatutako "11- Pasos"¹¹ dokumentuak 11 pauso azaltzen ditu erronka bat garatzeko.

Ikasketa+zerbitzura¹² erronketan oinarritutako lankidetzako ikaskuntzako prestakuntzako ibilbidetik (Etekin Haziko Zikloak ETHAZI) hurbiltzen gara eta ikasketa+zerbitzuko "onura sozialeko" erronka baten bultzada eransten diogu.

¹¹ D"11 pasos" dokumentua. TKNIKA. <https://ethazi.tknika.eus/wp-content/uploads/sites/29/2021/03/11-pasos.pdf>

¹² PUIG, J. M. eta MARTÍN, X. (2007). *Guía Zerbikas 1: Cómo iniciar un proyecto de aprendizaje y servicio solidario*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa

ETHAZI	IKASKETA+ZERBITZUA
0. TALDEA AKTIBATZEA Fase honen helburua da elkarlaneko ikaskuntzaren testuingurua ezartzea edo indartzea. Lehenengo, ikaskuntza-taldeak sortu eta aktibatzen dira, hau da, segurtasun eta konfiantza guneak. Kide bakoitzaren banakako itxaropenetatik abiatuta, taldeko konpromiso komunak adostu daitezke, funtzionamendu eta antolaketa dinamikak zehazteko. Gero, fase horrek balio du talde bakoitzak berrikusteko zein neurritan ari diren adostutako konpromisoak betetzen eta funtzionatzeko hobekuntzak adosteko gai.	Taldearen edo taldeen kohesioan lagungarri diren talde dinamikaren osagaiak lantzea litzateke. Taldearen eta taldea osatzen dutenen heldutasunaren, aukeren eta mugen ikuspegia lortu nahi dugu: zein interes eta motibazio duten, lanbideko garapen-maila zein den edo zein hezkuntza-premia berezi duten, taldearen dinamika zein den, nola kudeatzen dituzten gatazkak, zein jarrera eta balio duten, zer-nolako sentiberatasuna duten inguruko eta gizarte orokorreko arazoan inguruan, etab. Horretarako, parte hartzeko metodologiak erabiltzen ditugu: talde-lana eta lankidetza, proiektua definitzen eta faseak garatzen parte hartzen duten neska-mutilen inplikazio orekatua, sendoa eta berdinzalea.
1. ERRORIKA PLANTEATZEA Fase honen asmoa da taldeei konpondu behar duten arazoa planteatzea eta azaltzea.	Gizarte premiak identifikatuko dituen errealitatearen analisiari esker, arazo bat edo batzuk identifikatuko ditugu. Hortik aurrera, taldeak edo talde desberdinek zer erronkari aurre egin beharko dioten definituko da. Beharrezko, interesgarri, irisgarri eta egoki izango den zerbitzu bat zehaztuko da. Hortaz, hau planteatuko dugu: • Zer gizarte-premia errealek edo "kausak" motibatuko lukete taldea? • Zer zerbitzu burutuko lukete, premia horiekin lotuta? • Kausa horiekin konprometita dauden zer erakundek lagunduko ligukete zerbitzua burutzen?
2. ERRORIKA IDENTIFIKATZEA ETA HAREKIN LOTZEA Identifikatzea: Zer eskatzen du erronkak? Pauso horrek erronka era globalean ulertzeko aukera emango luke; hala, ziurtatu egiten da planteatzen den egoera berdin ulertzen dutela taldeek. Konektatzea: Zerk bihurtzen du erronka erakargarri? Pauso horri esker, taldeek erronka taldeko erronka esanguratsu eta motibagarri gisa interpretatzen dute. Interes propioekin ere lotzen dute, burutu ahal izateko. Halakoetan, garrantzitsua da taldeak zer amaierara iritsi nahi duen adostea.	Parte hartzen duten ikasleek zentzua aurkitu behar diote zerbaiten alde mobilizatzeari, eta horrek denbora eskatzen du errealitate txundigarriak ezagutu eta sentiberatzeko. Baliabide batzuk aktibatu ditzakegu: • Beste talde batzuen aurreko esperientziak aprobetxatu. • Zentrotik kanpoko pertsonen lekukotasun zuzena bilatzea, taldeak proiektu esanguratsu batean parte hartzera gonbidatzea. • Proiektua ezaugarri berdina dituzten beste talde batzuekin partekatzea. • Familia, gizarte edo talde-mailan egon daitezkeen une "sentiberak" aprobetxatzea. Garrantzizkoa da proiektuan parte hartzen duten erakundeen artean sarean aritzea ikuspegi komunitariotik (lankidetzak ikastetxeen, gizarte erakundeen eta administrazioaren artean) eta elkarrekikotasunez (talde guztiek onurak atera ditzaten).

3. PARAMETROAK EZARRI

Zer dakigu edo zer jakin behar dugu erronka horri aurre egiteko? Fase honen helburua hauxe da: nola sorrarazi galderak erronkaren zati desberdinen jakintza-arloak ikertzeko.

Asmoa da ikaslea bideratzea jakin behar duenera; "ez dakit zer denetik" "badakit zer ez denera", zeharkako gaitasunetara eta teknikoetara.

Erronka bati lotutako galderak planteatzea ikaskuntza esangurat-suko planteamenduekin lerrokatzen da.

4. INFORMAZIOA LORTZEA ETA ANTOLATZEA

Aurreko fasean galderak planteatzea erantzunak bilatzearekin lotuta dago. Erantzun horiek galdera gehiago sorraraz ditzakete eta aurreko fasea prozesu zikliko bihurtu.

Galdera horien erantzunak hainbat eratara eman daitezke: ikaskuntza teoriko eta praktikoen bidez, bilaketa eta ikerketa ireki edo bideratuen bidez, nahitaezko edo hautazko eskola magistralen bidez, zaintza tresna, bisita, adituen saio, tailerreko praktika, orientazio trebakuntzen bidez, etab.

Horretarako, informazioa era kritikoan aztertu behar dute eta etapa horretan lortu diren erantzunak eta ikaskuntzak egiaztatu behar dituzte.

5. ALTERNATIBAK SORTZEA

Aurreko faseetan eraikitako ezagutzatik abiatuta, garatu beharreko irtenbidearekin lotuta dauden aukerako alternatiba desberdinak pentsatzen dira.

Zenbat eta alternatiba gehiago izan, hobeto. Fase honetan komeni da dibergentziako dinamikak erabiltzea alternatibak sortzeko eta taldekide bakoitzaren ideiak sortzeko aukerak gordetzea.

Zerbitzuari lotutako ikaskuntzak ezartzea.

Lanbideko modulu desberdinetara lotzeko balioko luketen eduki inplizituak zerbitzuan zehaztea litzateke eta pentsatzea proiektua garatzeko zer informaziotara sartu beharko litzatekeen.

Martxan jarri beharko diren hezkuntza helburuak eta lanbideko gaitasunak argi aurkeztu beharko lirateke.

Garrantzizko alderdi bat ikasketa+zerbitzuko erronkara lotutako Nazio Batuen Erakundeko 2030 Agendako GJHak egoki identifikatzea da.

Zerbitzuari zuzenean lotuta dauden ikaskuntza jarduerak nagusiak:

Batzuetan gelako jarduerak izango dira eta, beste batzuetan, tailerrekoak (barruan sartzen dira landa-laneko ikerketa jarduerak).

Garrantzi handikoak dira jorratu nahi den arazoari buruzko hausnarketako jarduerak, zergatiak eta ondorioak. Baita komunitatearen zerbitzurako baliagarritasuna eta parte-hartzaileen bizitzarako jasotzen diren ikaskuntza pertsonalak ere.

Proiektu berberak ibilbide desberdinak izan ditzake. Ikasketa+zerbitzuko erronka berberak konponbide desberdinak izan ditzake.

Adierazi egin behar da nola gauzatu den eta antolatu den proiektua, baita nola errazten den konprometitu dauden hasierako proposamena diseinatzea, garatzea eta alternatiba desberdinak eskaintzea ere.

Prozesu horretan, parte hartzeko metodologiak erabiltzen ditugu: talde-lana eta lan-kidetza, proiektua definitzen eta faseak garatzen parte hartzen duten neska-mutilen inplikazio orekatua, sendoa eta berdinzalea.

6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA Taldearen barruko partaide bakoitzak eta taldeek sortutako proposamenen erakusketaren helburua hau da: taldeko kide guztiek partaide edo talde bakoitzaren ideien berri izatea, proposamenaren hautaketa, bakoitzaren ideiak ezagututa egiteko	Talde edo partaide bakoitzak bere proposamenak aurkeztuko ditu erronkari erantzuteko.
7. PROPOSAMENA AUKERATZEA Taldeak adostu egingo du erabakia, alternatiba bakoitza baloratu eta aukeratuko du erronkari irtenbidea emateko egokiena iruditzen zaiona, ekarpenak kontuan hartuta.	Burutuko den proposamen zehatza definituko da gizarte-mailako premiari edo arazoari erantzuteko, taldearen ahalmenen barruan egin eta komunitatearentzat benetan baliagarri izan dadin.
8. EKINTZEN PLANGINTZA Taldeak adostuko du zer ekintza burutuko diren eta zer baliabide dagoen; eta sekuentziazioa, denboralizazioa eta zereginen esleipena antolatuko da taldearen barruan. Horretarako, bakoitzak hartu duen ikasteko konpromisoa hartzen du kontuan edo gutxien garatutako ikaskuntzak, eta plangintzan jarraipena eta arriskuen analisia sartzen ditu.	Zerbitzuaren helburu zehatza eta «eskulanaren» deskribapena azaltzen dira, hau da, ikasleek egingo dituzten zerbitzuaren zeregin nagusiak eta horiek ingurunean duten eragina. Ahal den neurrian, lortu behar diren emaitza ukigarriak aipatzen dira. Balio berezia du zerbitzuak antzemandako problematikarekin lotuta aldaketa argiak eragitea edo lortzea denboran zehar. Era berean, ahal den neurrian, proiektu honetan mobilizatu behar diren berariazko baliabideak (materialak, ekonomikoak, giza baliabideak...) laburbildu nahi dira, bai LHko ikastetxearenak, bai parte hartu duten gizarte-erakundearenak. Garrantzitsua da zentroarenak edo erakundearenak ez diren beste baliabide batzuk lortzea.
9. EKINTZAK GAUZATZEA Taldeak planifikatutako ekintzak abian jartzen ditu, jarraipena egin eta sortzen diren desbideratzeak zuzentzen ditu. Fase honek trebetasun eta berariazko trebetasunen garapena sendotzen du, praktikaren eta esperimentazioaren bidez. Komeni da kontrastatzea ea egiten ari diren ekintzek espero diren ikaskuntzak dakartzaten.	Proiektua planifikatuta zegoen bezala gauzatzea, gauzatzean izandako gorabeheren modu egokian erantzunez. Komeni da proiektuaren garapenaren denbora-eskema bat aurkeztea, faseak labor adierazita, gaitasun profesionalen eta zerbitzuko funtsezko edo zeharkako gaitasunen ikaskuntza-alderdiekin. Sekuentzia kronologikoa zabaltzea, proiektua egiteko prozesua hobeto ulertu ahal izateko.

10. EMAITZAK AURKEZTEA

Taldeak bere proposamena garatzeko prozesua eta bere erronkaren emaitza aurkezten ditu, banaka eta/edo taldean.

Garrantzitsua da erronkaren emaitza fisikoak aurkeztea, baita aurki-kuntza pertsonalekin, zailtasunekin eta abarrekin ikasitakoa ere.

Puntu honetan, proiektuaren emaitza nola erakutsiko den deskribatu behar da: ekitaldi bat egiten da gazteei, parte hartzen duten erakundeei eta abarri beren lana aitortzeko.

Garrantzitsua da azken ekitaldi bateratu bat egitea proiektuan parte hartzen duten gainerako eragileekin: erakundeak, onuradunak...

Proiektua inguruan eta ikastetxeko gainerako ikasleei ezagutarazteko erabiliko diren bitartekoak eta estrategiak azaltzea, bai eta herrian eta komunikabideetan zer ondorio lortu nahi diren zehaztea ere.

Garrantzitsua da proiektuaren lagin grafikoa eta bisuala izatea. Horren helburua da proiektua ilustratzea, batez ere praktikan jartzea; parte hartzaileek nabarmendu nahi dituzten alderdiak jasotzea, eta proiektu zehatzaren eta ikasketa+zerbitzuaren zabalkundean laguntzea.

Bereziki esanguratsuak dira proiektua modu argian irudikatzeko helburua duten bi-deoak, neska-mutil protagonisten eta zerbitzuaren hartzaileen testigantzak jasotzen dituztenak, halakorik badago.

11. IKASKUNTZARAKO HAUSNARTZEA ETA EBALUATZEA

Erronka osoan zehar egin beharreko prozesua bada ere, une hau funtsezko prozesua da, eta horrekin osatzen dugu ikasteko prozesua.

Irakasle-taldeak, feedback prozesu horren bidez, ikasitakoari eta ondo joan denari buruz hausnartzen laguntzen die ikasleei. Beste hainbeste gertatuko da, erronka garatzen den bitartean identifikatutako hobeak arloei buruz ere, konpromiso gisa erregistratuko baitira.

Bereziki, landu nahi den arazoari, horren kausei eta ondorioei buruzko hausnarketa-jarduerak dira baliotsuak, bai eta komunitateari emandako zerbitzuaren eta parte-hartzaileen bizitzarako lortzen diren ikaskuntza pertsonalen erabilgarritasunari buruzkoak ere.

Proiektu osoaren eta planteatutako helburuen betetze-mailaren ebaluazioa aurkeztuko da.

Egokia da azken balantze bat egitea, honako hauek jasoko dituen: parte-hartzaileen iritzia, proiektuaren indarguneak, hobetzeko elementu kritikoak, lortutako emaitza ukigarriak, jasangarritasunari buruzko hausnarketa.

Gainera, adieraziko da proiektua denboran mantendu nahi den, proiektuan gizarte erakundearekin edo hartzaileekin jarraitzeko konpromisoa dagoen, ebaluazio tresna zehatzak ematen diren...



Adibidea: LHko ikasketa+zerbitzurako proiektua: Hahatayrekin birziklatzen

Muskizko (Bizkaia) Somorrostro prestakuntza zentroak ikasketa+zerbitzuko proiektu gisa garatu duen erronka bat aurkeztuko dizuegu, ETHAZI metodologiarekin egina. Lan horrekin, EDUCO GKEak babesten duen Garapenerako Lankidetzako 2019ko Ikasketa+Zerbitzuko Saria irabazi zuten, eta urte horretan IKASKETA+ZERBITZUKO ESPAINIAKO SAREAK, EDB Fundazioak eta EDUCOk sustatu zuten.



IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUA LHn:

1. Proiektuaren sinopsia, bideoaren esteka eta Garapen Jasangarriko Helburuekiko lotura

LABURPENA: Soldadura eta galdaragintza (SG2), mekanizazioa (ME2), ingurumen-hezkuntza (IH3), eraikuntza metalikoak (EM3), sistema elektrotekniko eta automatizatuak (SEA3) eta arriskuen prebentzioa (AP3) heziketa-zikloetako ikasleek lau makina eraiki dituzte: birringailua, estrusio-makina, injektorea eta konpresorea. Gandioleko (Senegal) hondartzetan pilatutako plastikoak tokiko komunitatearentzat objektu erabilgarri bihurtzeko balioko dute. Adibidez, baldosak, teilak, heldulekuak...

Makina horiek eraikitzeko, inplikaturako zikloen funtsezko ikaskuntzak praktikan jarri behar ziren: soldatzea, mekanizatzea, exekuzio elektrikoa, Senegaleko plastiko moten azterketa bat, eta erabilera seguruko eskuliburuaren diseinua eta makina horiek manipulatzeko egon daitezkeen arriskuen identifikazioa.

“Hahatayrekin birziklatzen” proiektua GJH hauei lotuta dago:



Bideoaren esteka: <https://youtu.be/L80pTu2c10U>



2. Proiektuak artatzen duen inguruneko beharra edo arazoa

Gandiol Saint Louis eskualdean dago, Senegaleko iparraldean. Afrikako mendebaldeko herrialde honetako landa-komunitate handienetako bat da. 30 herrixkak eta 28.000 biztanle inguruk osatzen dute, eta bere kokapen geografikoagatik eta Senegal ibaiaren deltan dagoelako, eskualde kaltebera da.

Gaur egun, Langue de Barbarieren gainean eraikitako arrakala artifizial batek aldatuta, eskualdeko zati handi bat suntsitzeko mehatxua du. Era berean, La Langue de Barbarieko parke nazionaleko hegazti-espezieak arriskuan jartzen ditu, eta arrantza murrizten du, biztanleek nekazaritza-ekoizpenerako erabiltzen zituzten lurak gazitzen direlako.

Hori dela eta, bertako biztanle askok, batez ere gizon nekazari gazteek eta arrantzaleek, herrialdeko beste eskualde batzuetara edo Mauritaniara ere joan behar izan dute. Emakumeak, kasu gehienetan, familiaburu gisa geratu dira eta, beraz, kide guztiak aurrera ateratzeko ardura hartu dute. Hori oso zaila da, bizimodua ateratzeko ia jarduera ekonomikorik ez dagoelako. Horrek guztiak biziki pobretu du eskualdea.

Gandiolen testuingurua eta ingurumen-arazoak

Azken hamarkadetan, industria eta hiri-garapenaren eta globalizazio ekonomikoaren ondorioz, produktuak neurritz gaineako erritmoan igarotzen dira herrialde batetik bestera, eta hondakin ez-berriztagarri inbaditu dituzte. Gehienak plastiko, produktu toxiko eta hondakin teknologikoak dira eta ez dute hondakin horiek kudeatzeko moduari eta ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioei buruzko inolako informaziorik.

Duela hamarkada batzuetatik hona, badakigu horren guztiak osasun-arazo larriak sortzen dituela, gaixotasunak, mehatxu handiak ingurumenean, batez ere faunan eta floran, baita atmosferaren eta uraren kutsadura ere. Zeharka, ondorio sozial larriak aurkitu ditugu, hala nola zaborra kontrolik gabe pilatzearen ondorioei buruzko informazio eta hezkuntza faltagatik oraindik aitortuta ez dauden biztanleriaren joan-etorriak.

Senegalen benetako arazo bat dago etxeko hondakinen kudeaketan, eta hori areagotu egiten da landa-eskualdeetan. Horien kudeaketa txarrak osasungarritasun arazo larriak sortu ditu auzoetan. Saint Louis eskualdean, zehazki, zaborra biltzeko sistema bat dago, baina ez da nahikoa hiriak sortzen duen hondakin kopururako. Gainera, bilketa hori ez da inguruko komunitateetara iristen, Gandiolera, kasurako: arazo larria dago hondakinak pilatzen direlako eta zaborra jendea bizi den lekuetan nahiz jenderik ez dagoen lekuetan isurtzen delako.

3. Proiektua garatzen duten neska-mutilen hezkuntza premiak

Gure ustez, ikasleen hezkuntza-premia bat da trebetasun teknikoak lortzeko planteatzen zaizkien erronka horietan motibazio erreala, pertsonala eta emozionala aurkitzea.

Erronka horiek dira ETHAZIren tresna pedagogikoa, Lanbide Heziketako etapan erabiltzen dugun metodologiarenak.

Erronka hau zuzenean heldu zitzaigun Senegaletik. Mamadou Díak, Hahatay GKEaren sortzaileak, gure zentroa bisitatu zuen 2018ko urriaren 25ean. Gandioleko komunitatean plastikoen metaketa zela eta errealitate kezagarria bizi zutela azaldu zuen, eta gure ikasleei lankidetza proposamen bat egin zien. Proposamen hori berehala onartu zuten ikasleek, gogo biziz.



4. Zerbitzuaren dimentsioa eta nolako zereginak sartzen diren barruan.

Zerbitzuan honako hau egin da:

- PRECIUS PLASTIC teknologia (www.preciusplastic.com) aztertu eta ikertu.
- Zerotik eta material birziklatu eta berrerabiliekin eraiki dira lau makinak: Mekanizazio, Soldadura eta Galdaragintza, Eraikuntza metalikoa eta Elektrizitate sailak lanean jarrita.



INJEKTOREA



HONDAKIN-BIRRINGALUA



ESTRUSIO-MAKINA




LABE-KONPRESOREAHORNO

- Makina bakoitzaren arriskuak identifikatzea, behar bezala eta segurtasunez erabiltzeko. Lehengaia biltegitratzea eta sailkatzea ere bai (Laneko Arriskuen Prebentzioa. Ingeleseko moduluan egindako aurkezpena).
- Ingurumen Sentsibilizazioko Txostena eta Tailerra, hondakin plastikoak biltzeko eta kudeatzeko eta, ondoren, elementu erabilgarriak ekoizteko proposamen batekin, plastiko-mota bakoitzaren ezaugarrien arabera (Ingurumen Hezkuntzako zikloa).

- Euskadi bisitatuko zuten Gandioleko gazteekin topaketa bat prestatzea. Martxoaren 21ean, 9 gazte senegaldarrek gure zentroa bisitatu zuten beren komunitatearen ordezkari gisa. Erosketa saskiari, plastikoen presentziari, kontsumo alternatiba jasangarriagoei eta bi konpromiso bateratzeari buruzko hausnarketa tailerra egin genuen. Tailerrak bisitatu genituen, makinaren egoera azaldu genuen eta topaketa ospakizun ludiko batekin amaitu genuen.

5. Hezkuntza-helburuak, gaitasunak eta curriculum-lotura

- Plastikoen kontsumoarekin lotutako problematika eta ingurumenean dituen ondorioak maila globalean ezagutzea.
- Precius plastic teknologia ikertzea soluzio posible gisa ikertzea eta Gandioleko komunitatean duen bideragarritasuna aztertzea.
- Lau makinak material birziklatu eta berrerabilitatetik abiatuta eraikitzea.
- Zikloen artean koordinatzea makinak modu sekuentzializatuan eraikitzeko.
- Makinei lotutako arriskuak eta horien berri emateko biderik onena aztertzea.
- Hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea plastikoen erabileraren problematikari eta egin daitezkeen alternatibei buruz.
- Berdinen arteko garapenerako lankidetzaren ikuspegia ezagutzea eta praktika asistentzialistak gainditzea.
- Bidaia-esperientzia duen lankidetzaren proiektu batean konprometitzea. Horrela, pertsonen arteko topaketa ahalbidetzen da, eta lankidetzan diharduten taldeen artean ezagutzak trukatzeko dira: Somorrostroko eta Gandioleko gazteak.



HEZKUNTZA HELBURUAK:	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Plastikoen kontsumoarekin lotutako problematika eta ingurumenean dituen ondorioak maila globalean ezagutzea.	ZIKLOAK: INGURUMEN-HEZKUNTZA IRAKASGAIA: 0788 INGURUMEN KUDEAKETA IE3. (Ikaskuntzaren emaitza). Hondakinen tratamendua eta bidalketa araudiaren arabera betetzen direla egiaztatzeko prozesua diseinatu du. Kudeaketa-prozesua jarraitzen du hori egiteko. IE5. Lurzoruetan kutsatzaileen legeko mugak betetzen direla egiaztatzeko prozesua diseinatu du. Horretarako, fokuak aztertzen ditu. 0785 INGURUMENAREN EGITURA ETA DINAMIKA IE2 Ingurumenean eragina duten giza jarduerak bereizten ditu. Ingurumen-jasangarritasuneko eta -orekako irizpideekin lotzen ditu. IE3. Lehorreko, aireko eta uretako ekosistemen funtzionamenduan eragina duten faktoreak interpretatzen ditu. Prozesu geologiko, meteorologiko eta hidrologikoaren garapenarekin erlazionatzen ditu. IE6. Faktore antropikoek ingurumenean duten eragina egiaztatzen du. Biodibertsitatea mantentzeko duten balioa aztertzen du
<i>Precius plastic</i> teknologia ikertzea soluzio posible gisa eta Gandioleko komunitatean duen bideragarritasuna aztertzea.	0093 SOLDADURA ATMOSFERA NATURALEAN IE2 Oxigenoz, elektrodoz eta erresistentziaz soldatzeko ekipoak prestatzen ditu, baita oxigaseko proiektzioak ere. Erregulatu beharreko parametroak, gasak eta erregaia identifikatzen ditu, baita lortu nahi den produktuaren ezaugarriekin duten lotura ere. IE3. Oxigas, elektrodo eta erresistentzia bidez soldatzeko ekipoak eta oxigeno bidez eskuz proiektatzekoak maneiatzen ditu. Horrela, bere funtzionamendua prozesuaren baldintzekin eta azken produktuaren ezaugarriekin lotzen da. IE5. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzen ditu eta arriskuak eta horiei aurrea hartze-ko neurriak eta tresneria identifikatzen ditu. 0006 METROLOGIA ETA SAIAKUNTZAK IE2. Produktuen dimentsioak, geometriak eta gainazalak kontrolatzen ditu. Horretarako, neurriak kalkulatu eta produktuaren zehaztapenekin alderatzen ditu. IE4. Fabrikatutako produktuaren ezaugarriak eta propietateak kontrolatzen ditu. Horretarako, parametroaren balioa kalkulatu eta emaitzak produktuaren zehaztapenekin alderatzen ditu.

	E-100 INGELES TEKNIKO IE1. Tituluaren lanbide-esparruarekin eta eskaintzen den produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du. Produktuen eta zerbitzuen ezaugarriak eta propietateak, enpresa-motak eta kokapena identifikatzen eta deskribatzen ditu. IE2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriak eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskaera-ordria, jasotze- edo emate-ordria, fakturak, erreklamazioak. IE3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatzen eta aplikatzen ditu. Herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta ohiturak errespetatzen ditu. 0007 INTERPRETAZIO GRAFIKO IE3. Prozesuak gauzatzeko tresnen eta erreminten krokisak egiten ditu eta, kasu bakoitzean, eraikuntza-soluzioak definitzen ditu. IE4. Makinak eta ekipak automatizatzeko eskemak interpretatzen ditu eta instalazio pneumatikoetan, hidraulikoetan, elektrikoetan, programagarrietan eta programatu ezinetan irudikatutako elementuak identifikatzen ditu.
Lau makinak material birziklatu eta berrerabiltzatik abiatuta eraikitzea.	0092 MEKANIZAZIOA IE1. Mekanizazioa gauzatzeko lana antolatzen du eta egin beharreko operazioen sekuentzia deskribatzen du. IE2. Materialak, ekipak, erremintak eta babes elementuak prestatzen ditu eta egokitu beharreko parametroak eta lortu nahi den produktuaren ezaugarriekin duten lotura identifikatzen ditu. IE3. Mekanizazioko eskuzko eragiketak egiten ditu. Horretarako, prozedurak lortu beharreko produktuarekin erlazionatzen ditu eta eragiketa-teknikak aplikatzen ditu. IE4. Mekanizaziorako makina konbentzionalak eta zenbakizko kontrollekoak erabiltzen ditu. Bere funtzionamendua eta programazio-jarraibideak prozesuaren baldintzekin eta lortu nahi den produktuaren ezaugarriekin lotzen ditu. IE5. Makinen, ekipoen eta erreminten lehen mailako mantentze-lanak egiten ditu. Funtzionaltasunarekin erlazionatzen ditu. IE6. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzen ditu eta arriskuak eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta tresneria identifikatzen ditu.

0091 TRAZADURA. EBAKETA ETA KONFORMAZIOA

IE4. Ebaketa termikoko ekipoak eta makinak erabiltzen ditu, konbentzionalak zein zenbakizko kontrolekoak. Identifikatzen ditu kontrolatu beharreko parametroak eta erlazionatzen ditu lortu beharreko produktuarekin.

IE5. Konformazio termikoko ekipoak eta makinak, konbentzionalak zein zenbakizko kontrolekoak, maneiatzen ditu. Ezagutzen ditu kontrolatu beharreko parametroak eta erlazionatzen ditu lortu nahi den produktuarekin.

0094 SOLDADURA ATMOSFERA BABESTUZ

IE1. Soldadura, birkargatzea eta proiektzioa egiteko lanak antolatzen ditu. Prozesu-orria edo dagokion prozedura aztertzen ditu eta beharrezko dokumentazioa prestatzen du.

IE2. TIG, MAG/MIG soldatzeko ekipoak prestatzen ditu, baita arkuko proiektzioak ere. Erregulatu beharreko parametroak eta gasak identifikatzen ditu, baita lortu nahi den produktuaren ezaugarriekin duten lotura ere.

IE4. TIG, MAG/MIG soldatzeko ekipoak erabiltzen ditu, baita arku proiektzioak ere. Horrela, funtzionamendua prozesuaren baldintzekin eta azken produktuaren ezaugarriekin lotzen du.

IE6. Soldatzeko, roboteko, birkargatzeko eta proiektatzeko ekipoen eta horien osagarrien lehen mailako mantentze-lanak egiten ditu. Funtzionaltasunarekin erlazionatzen ditu.

IE7. Laneko arriskuen prebentzioko arauak eta ingurumena babestekoak betetzen ditu. Arriskuak identifikatzen ditu, baita horiei aurrea hartzeko neurriak eta ekipoak ere.

METALEZKO KONSTRUKZIOAK

0249 LOTZEKO ETA MUNTATZEKO PROZESUAK METALEZKO ERAIKUNTZETAN

IE1. Metalezko eraikuntzak lotzeko eta muntatzeko prozesuak antolatzen ditu. Horretarako, produktuaren zehaztapenak eta prozesu-orriak interpretatzen ditu.

IE2. Lotura- eta muntaia-prozesuan esku hartzen duten makinak, tresneria, sistema automatikoak, lanabesak eta erremintak prestatzen ditu. Horrela, funtzionamendua eta prozesuaren baldintzak eta azken produktuaren ezaugarriak aztertzen ditu.

IE3. Lotura- eta muntaia-prozesuan esku hartzen duten makinak, ekipoak eta sistema automatikoak maneiatzen ditu. Horrela, funtzionamendua prozesuaren baldintzekin eta azken produktuaren ezaugarriekin lotzen du.

IE4. Makinen, erreminten eta tresnen lehen mailako mantentze-lanak egiten ditu, eta prozesuan dituzten inplikazioak justifikatzen ditu.

IE5. Laneko arriskuen prebentzioko arauak eta ingurumena babestekoak betetzen ditu. Arriskuak identifikatzen ditu, baita horiei aurrea hartzeko neurriak eta ekipoak ere.

	1. MAILAKO SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK 0520 SISTEMA ETA ZIRKUITU ELEKTRIKOAK IE1. Sistema elektrikoaren parametroak zehazten ditu eta korrante alternoko zirkuituetan kalkuluak edo neurketak egiten ditu. IE2. Korrante alternoko makina birakariaren ezaugarriak zehazten ditu. Horretarako, funtzionamenduko printzipioak aztertzen ditu eta aplikazio-eremuak identifikatzen ditu. 0518 INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKAK ETA PROZESUAK IE1. Instalazio eta sare elektrikoak birplanteatzen ditu, obra zibileko planoak eta eskema elektrikoak interpretatzen ditu, eta trazadurak, ekipoa eta elementuak haien kokapenarekin lotzen ditu. IE2. Instalazio elektrikoak muntatzeko programak egiten ditu. Jardueren sekuentzia ezartzen du eta erabili beharreko baliabideak identifikatzen ditu. IE3. Eraikinetako eta eraikinen inguruko instalazio elektrikoak muntatzen ditu. Horretarako, berariazko teknika eta prozedurak aplikatzen ditu eta segurtasun arauak errespetatzen ditu.
Makinei lotutako arriskuak eta horien berri emateko biderik onena aztertzea.	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA MF 0408-3 PREBENTZIOAREN KUDEAKETARA IE1. Arriskuaren prebentzioaren indarrean dagoen lege-esparrua interpretatzen du. IE5. Arriskuaren prebentzioaren indarrean dagoen lege-esparrua interpretatzen du.
Hezkuntza-komunitatea sensibilizatzea plastikoen erabileraren problematikari eta egon daitezkeen alternatibei buruz.	0957 ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA IE1. Ekimen ekintzaileari lotutako gaitasunak aitortzen eta baloratzen ditu. Horretarako, lanpostuen eta enpresa jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu. IE2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera definitzen du, enpresa-idea hautatzen du eta bideragarritasuna babesten duen merkatu-ikerketa egiten du. Horretarako, jarduera-ingurunean duen eragina baloratzen du, eta balio etikoak txertatzen ditu. IE3. Enpresa-plana lantzeko, ondoren abian jartzeko eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Forma juridikoa hautatzen du eta lotutako legezko betebeharrak identifikatzen ditu. IE4. ETE baten oinarritzko administrazio- eta finantza-kudeaketako jarduerak egiten ditu, eta kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu. Dokumentazioa betetzen du.

Berdinen arteko garapenerako lankidetzaren ikuspegia ezagutzea eta praktika asistentzialistak gainditzea.	0017 TREBETASUN SOZIALAK IE3. Bilerak gidatzen ditu, eta horietan esku hartzeko eta antolatzeko moduak edo estiloak aztertzen dira, hartzaileen ezaugarrien eta testuinguruaren arabera. IE4. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko estrategiak implementatzen ditu. Testuinguruaren ezaugarrien arabera aukeratzen ditu, eta eredu desberdinak aztertzen ditu. 0795 LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA IE2. Talde-lanaren estrategiak aplikatzen ditu. Erakundearen helburuak lortzeko eraginkortasuna eta efizientzia baloratzen ditu.
Lankidetzaproiektu batean konprometitzea eta bidaia-esperientzia sartzea. Horrela, pertsonen arteko topaketa ahalbidetzen da, eta lankidetzan diharduten taldeen artean ezagutzak trukatzeko dira, Somorrostroko eta Gandioleko gazteen artean.	0017 TREBETASUN SOZIALAK IE3. Bilerak bideratzen ditu eta horietan esku hartzeko eta antolatzeko moduak edo estiloak aztertzen dira, hartzaileen ezaugarrien eta testuinguruaren arabera. IE4. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko estrategiak implementatzen ditu. Testuinguruaren ezaugarrien arabera aukeratzen ditu eta ereduak aztertzen ditu. 0795 LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA IE2. Talde-lanaren estrategiak aplikatzen ditu, eta horien eraginkortasuna baloratzen du, erakundearen helburuak lor daitezen.

6. Ikaskuntza- eta hausnarketa-jarduerak

- Topaketa Mamadou Diarekin eta pobreziaren kontzeptuari eta herrien arteko lankidetzari buruzko hausnarketa.
- Hondakin plastikoek itsasoan eta, zehazki, Senegaleko kostaldeko metaketaren azterketa eta analisisa.
- *Precius plastic* teknologiaren ikerketa.
- Makinak zerotik eraikitzea eta materialak berrerabiltzeko bideragarritasuna aztertzea.
- Talde-lana: ikasgela barruan eta prozesuan ezinbestekoak diren beste ziklo batzuekin.
- STEAM (Science, Technology, Engineering, Arts and Mathematics - Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematika) azoketarako sentsibilizazio-panelak prestatzea.
- Martxoan Gandioleko gazteekin elkartzeko prestakuntza.
- "Jo erronka zeure buruari" erronka diseinatzea eta praktikan jartzea, proiekturako dirua biltzeko.
- Prestakuntzako bilerak eta bidaiak prestatzea.
- Astebeteko lankidetzak esperientzia Gandiolen.

7. Neska-mutilen parte hartzea, protagonismoa eta antolaketa

EAbiapuntua inplikaturako ziklo guztiei erronka helaraztea izan zen. Proiektuan parte hartzea borondatezkoa zen. Espezialitate guztietako ikasle taldeak inplikatu ziren erronkan, baita beren irakasgaien barruan sartzeko prest zeuden irakasleak ere (ETHAZI metodologiak horrelako ekimenak bultzatzen ditu, ikaskuntza erronken arabera baita).

Azoketan parte hartu zuten, erronkak sortu ziren hezkuntzako gainerako etapetarako. Adibidez: ikasleen ekimenez sortu zen "Jo erronka zeure buruari", bizikleta baten direkzioa aldatu zuten eta euro baten truke 20 metro aurrera egiteko saioa egin ahal zuten. Ikasle bakar batek baino ez zuen lortu. Ikastetxeko kafetegian gosari bat eman zioten sari. 120 € bildu ziren, ikasleen beren ekimenez.

Zati elektrikoa zaildu egin zen amaieran, eta "Sistema elektrikoak eta automatizatuak" ikasgaiko ikasleek borondatez parte hartu zuten abian jartzean, ikasturtea amaitu ondoren. Erronka pertsonala zen, iada, makinek funtzionatzea eta baldosa perfektu batzuk egitea Somorrostron, denek nahi baitzuten oroitzeko bat eduki.

Azkenik, azken urratsean parte hartzea gonbidatu zituzten guztiak: makinak Gandiolera eramatera. Bi baldintza zeuden: hegazkina ordaintzea eta uztailean "prestakuntza" prozesu txiki batean parte hartzea. Zazpi lagunek erantzun zioten deiari.

Bidaia arrakastatsua izan da. Denak bat datoz esatean inoiz ahaztuko ez duten esperientzia izan dela maila pertsonalean, eta beste ikuspegi bat eman diela munduaz, kolektibitateaz eta gizarte-eraikuntzaz, mailetan sartu zutenaren oso bestelakoa.

8. Proiektuak eskatzen duen sareko lana

Proiektu hau Somorrostro Zentroaren eta Hahatay GGKEaren artean egin da.

Zentroa arduratu da honako hauetaz:

- Proiektua aztertzeaz. Ikastetxearen nortasunarekiko eta balioekiko bateragarritasuna, ahalmen pedagogikoa eta benetako bideragarritasuna aztertzeaz.
- Proiektuaren koordinazio pedagogikoa: inplikaturako irakasle-taldeei helarazteaz eta ikasleen jarraipena eta motibazioa egiteaz.
- Makinen eraikuntzaz. Beharrezko baliabideak aztertzeaz eta bilatzeaz, materialak berrerabilita.
- Proiektua komunikabideetan zabaltzeaz eta STEAM azokekin koordinatzeaz, ikasleek aurkez dezaten.
- Gandiolerako bidaia prestatzeaz. Ikasleei eta familiei aurkezteaz. Prestakuntza-bilerak egiteaz ikasleekin eta familiei informazioa emateko.
- Txartelak erosteaz eta aseguruak kontratatzeaz.



Hahatay GGKEa arduratu zen:

- Proposamena aurkezteaz.
- Proiektua urteetan egiten ari diren lan zabalago baten barruan kokatzeaz, hainbat erakundek eta administrazioek batera finantzatua.
- Mamadouren eta Gandioleko gazteen bisiten antolaketaz.
- Makinen eraikuntza-prozesuaren jarraipena egiteaz.
- Gandiolerako bidaia prestatzen laguntzeaz eta bileretan egoteaz.
- Gandioleko egonaldian gure ikasleei eta irakasleei harrera egiteaz eta monitorizatzeaz.

9. Ospakizuna eta zabalkundea

Proiektua hainbat hedabidetan zabaldu da prozesu osoan zehar, baita TVEn ere.

Proiektuaren ospakizunak hitzordu hirukoitza izan du:

- **Lehenengoa**, makinek azkenean funtzionatu zutenean Somorrostron, uztailearen 10ean. Elektrizitateko ikasle boluntarioek eskolak amaitu ondoren lanean jarraitu zuten.
- **Bigarrena**, Gandiolen martxan jartzea lortu zutenean. Hango komunitatearekin ospatu zen.
- **Hirugarrena** irailaren 18an (asteazkena) egin zen, itxiera ekitaldi batean. Ekitaldi horretan Senegalera joan ziren 5 ikasleek egindako bideo bat aurkeztu zen. Esperientzia beren familiekin, irakasleekin eta ikasleekin partekatu zuten.



10. Proiektuaren faseen egutegia eta deskripzioa

URTEA	HILA	PROIEKTUAREN FASEA
2018	Ekaina	Proposamena irakasleei aurkeztea.
	Urria	Mamadou Diak Erronka abiaraztea.
	Azaroa	Soldadura eta galdaragintzako zikloek eta Metalezko eraikuntzakoek zati mekanikoak eta elektrikoak ainguratuta joango ziren egiturak egin zituzten.
	Abendua	Eraikuntza metalikoen zikloak hondakin-birringailuaren planoak aztertu zituen, baina ez ziren guztiz zuzenak. Horregatik, piezak laser bidez ebakitzen dituen enpresari egindako eskaeran zehaztu zituzten irakasleek. Kanpoan egitea erabaki zen, erabili beharreko materialaren lodierek aurrekontua garestitu egin baitzuten.
2019	Urtarrila	Mekanizazio zikloko irakasleek piezak jaso eta garbitu egin zituzten, batak bestea ukitu ez zezan, eta hondakin-birringailua muntatzea amaitu zuten, motorrari akoplatzeko.
	Otsaila	Hezkuntza eta Ingurumen Kontroleko sailek hondakin plastikoen kudeaketa eta Gandioleko gazteekiko topaketa landu zituzten.
	Apirila	Sistema elektrotekniko eta automatizatuen zikloak makineriaren diseinu elektrikoa hobetu zuen, eta segurtasun-gailuak gehitu zituen, hala nola pedal-etengailua edo larrialdiko gelditze-sakagailua.
	Maiatza eta ekaina	Arrisku Profesionalen Prebentzioak makinen segurtasun-kartelak egin zituen
		Makinen zati elektrikoa amaitzen ari zirenean, zuzenketak egin behar ziren makinen euskarrietan, ainguratzeetan edo konexioetan, eta Soldadura eta Galdaragintza eta Mekanizazio zikloetara jo zen behar zena aldatzeko eta artezteko.
		Gainera, bi zikloen artean beharrezko moldeak prestatu zituzten: baldosak, ontzia, armairuaren heldulekua...

11. Proiektua bultzatzeko behar ziren baliabideak

- **Giza Baliabideak:** Proiektuaren talde eragilea ikastetxeo bi irakaslek osatu zuten, zuzendaritzaren eta arlo sozialaren ordezkari batek eta koordinazio pedagogikoko batek, eta Hahatayko 2 ordezkari, bata alderdi teknikorako eta bestea alderdi ekonomikorako eta proiektuaren planteamendurako. Proiektuak eta ikastetxeo administrazioak eragiten zien (txartelak jaulkitzea eta materialak erostea, fakturak...) heziketa-ziklo guztietako irakasleak ere inplikaturik egon ziren.
- **Baliabide materialak:** erabilitako materialak berrerabili egin ziren, eta gainerakoa irakaskuntzako berezko material suntsikorra zen.

12. Proiektuaren ebaluazioa

Proiektuaren ondorio eta ikaskuntza nagusiak:

- Proiektu honetan inplikaturik ikasgeletako inkestetan adierazitako **gogobetetasuna** gainerakoena baino askoz handiagoa izan zen.
- **Motibazioa** izugarri handitu zen erronka benetakoa baitzen eta beste giza talde batekin elkarerragitea eskatzen baitzuen. Gazteen artekoa zenez, are gehiago...
- Laneko diziplina, **arreta eta errendimendua** askoz handiagoak izan ziren helburua benetakoa zelako eta kronograma taldeak bere gain hartu zuelako, beste prestakuntza-ziklo batzuekin koordinaturik (**talde-lana**) eta helburu handiagoarekin bat eginda.
- Amaieran egindako jarduerak hasieran planteatutakoak baino askoz gehiago izan ziren, proiektuarekiko inplikazioa zela eta. Ikasleek beraiek jarduera osagarri berriak planteatu zituzten helburuak lortzeko, eta horietan **inplikatu** egin ziren.
- Ikasleek eskuratutako gaitasun teknikoak curriculumekoak gainditu zituzten, bizitza errealak curriculumari beti gainditzen duelako eta **esploratzera** behartzen gaituelako.
- Nazioarteko lankidetzaren proposamenaren parte hartu zuten pertsonen **garapen pertsonala eta humanoa** benetako benetako bizi-esperientzia izan zen.
- Proiektu horri esker ikastetxe osoan sortu zen **gogo bizia** eta eragin mediatikoa benetako motibazio-motorra izan zen klaustro osoarentzat, eta **energia eraldatzaile** horrek kutsatuta, ideia berriak sortzen ari dira ildo horretan lan egiten jarraitzeko.

9. IKASKETA+ZERBITZUA: KOMUNITATEARI ZERBITZU BAT EMATEN ZAION BITARTEAN EKITEN IKASTEAK

Hezkuntza-prozesuaren parte guztietan, Lehen Hezkuntzatik hasi eta Lanbide Heziketaraino, ikasleen ekintzailertza-gaitasunaren garapena azpimarratzen da. Ekintzailertza-erakundearen ezaugarri hori Lanbide Heziketa arautuan nabarmentzen da, edozein gradutan: oinarritzakoan, erdi mailakoan edo goi mailakoan.

Ekintzailertza-erakundearen helburua da ikasleak gai izatea banakako edo taldeko ekintzak edo proiektuak irudikatzeko, garatzeko, ebaluatzeko eta proiektu horietan ekiteko. Eta sormenaren, konfiantza-erakundearen, erantzukizunaren eta zentzu kritikoaren irizpideen arabera egin dezatela.

Gaitasun horrek ideiak ekintza bihurtzeko egoeran jartzen du pertsona, sormena, berrikuntza, arriskuak hartzea, plangintza eta proiektuen kudeaketa bezalako trebetasunak garatuz.

Gainera, ikasleek elkarren artean lotuta dauden balio, jarrera eta trebetasun pertsonalez jabetu behar dute, hala nola, erantzukizuna, pertseberantzia, autoerantzukizuna, autoestimua, sormena, autokritika, kontrol emozionala, aukeratzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko gaitasuna, berehalako gogobetetzea atzeratzeko eta akatsetatik ikasteko gaitasuna.

Ekintzailertza-erakundearen gaitasuna xehatuz

Pertsona trebe batek badaki, nahi du eta egin ditzake egin nahi dituen lanak. Horrela, eta ekintzailertza-erakundearen gaitasunaren kasuan, ikasleek eskuratzeko eta garatzeko behar adina baliabide erraztu behar dira.

Ikaskuntza horiek garapen praktikoa eskatzen dute:

- Ekintza berriei ekiteko beharrezkoak diren **erantzukizunak**, errealitatea nola aztertu, egin beharreko proiektua nola planifikatu, baliabideak nola antolatu, nola eraiki, enpresari garrantzia emango dion antolaketa moduren bat nola eratu **jakitea**, beharrezkoa bada...

- Beharrezko motibazioa lortzeko ezinbestekoak diren **jarrerak eta balioak**. Norberaren onura gaingiditza eta gizartea hobetzen lagundu **nahi izatea**. Hobetzeko grina eta balio inklusiboak, zibikoak eta solidarioak bultzatuko dituzten jarrerak.
- Trebetasun **psikosoziala**, enpresa berriak garatzeko gai izan dadin. **Boterea**: gaitasun eta ahalmen pertsonalen ezagutzarekin lotutako trebetasunak, pentsamendu kritikoa eta sortzailea, trebetasun sozialak, arazoak eta gatazkak konpontzea, erabakiak hartzea...
- **Gaitasun profesionalak, zeharkako gaitasunak eta funtsezko gaitasunak**, ekimen ekintzaileei eraginkortasunez ekiteko aukera emango dutenak, pertsona etengabeko ikaskuntzan eta eguneratzeko bidean kokatuko dutenak eta ekin beharreko ekintzen aurrean begirada berritzailea emango diotenak.

EKINTZAILEAK

- Proiektuak bere gaitasunetara egokitzen ditu.
- Akatsetatik ikasten du.
- Proiektu pertsonalak planifikatzen eta lantzen ditu.
- Denborak eta zereginak antolatzen ditu.
- Motibazioa eta autoestimua mantentzen ditu.
- Badaki hitz egiten eta negoziatzen, eta besteen ideiak baloratzen.

Ekintzaileak bere ingurunea modu kritikoan aztertzeko gaitasuna du, bertan ikusten dituen mugak, zailtasunak edo arazoak garapen pertsonal eta sozialerako aukera bihurtzeko. Bere buruarengan sinesten du, aldaketarako duen ahalmenean, eta hori ausardiaz egiteko motibatuta dago. Bere gaitasunak ondo baloratzen ditu eta arriskuak hartzen ditu, erabaki egokiak hartzeko.

Ez du akatsen beldurrik, bere bizipenetan modu positiboan integratzen dituelako eta arrakasta bere akatsetatik ikastea dela ulertzen duelako.

Gaitasun horrek pertsonaren dimentsio desberdinak hartzen ditu barruan. Izan ere, autonomia eremu pertsonalean, profesionalean, familiarean, herritarrean, sozialean, politikoan, sindikalean, komertzialean... garatzean jartzen dugu praktikan.

Gizarte-ekintzailea

Gizarte-ekintzailetza gizartean ekintzailetzako printzipioei jarraiturik eragin sozial eskalagarria sortzea helburu duten ekimen berritzaileak dira. Planetako populazio ahulenei zerbitzatzeko misioa eta ekintzailetzako printzipioak eta jardunbide egokiak uztartzen ditu, mundu bidezkoagoa, zuzenagoa eta jasangarriagoa sortzeko.

Gizarte-ekintzaileak proiektu bat hasi eta garatzen duten pertsonak dira, gizarte-eragina onura ekonomikoaren gainetik lehenetsita.

Motibazio handiko pertsonak dira, beren buruarengan eta taldearengan konfiantza dutenak eta gizartean gustatzen ez zaienarekiko konpromisoa bilatzen dutenak.

Ekintzailetzarako gaitasun hori nola garatu

Ekintzailetzarako gaitasuna hezkuntzako ibilbidean zehar ekintzailetzako esperientzietan parte hartuz ikasten da.

Gaitasunen ikaskuntzak esanguratsua izan behar du eta funtzionaltasun-printzipioan zentratuta egon behar du. Ez dira gaitasunak modu “teorikoan” ikasten, baizik eta praktikan, ekintza-hausnarketa prozesuen bidez.

Esperientzia horiei esker:

- Proiektuak garapen pertsonal eta sozialaren gaitasunetara eta mailara egokitu daitezke.
- Prestatzen ari diren lanbide-eremuarekin lotutako proiektu errealek planifikatu eta landu daitezke.
- Denborak eta zereginak antolatu daitezke.
- Motibazioari eta autoestimuari eutsi dakiok.
- Hitz egiten, negoziatzen eta besteen ideiak baloratzen ikas daiteke.
- Akatsetatik ikas daiteke.

Gaitasun horren garapenak erreferente egokia du proiektuak diseinatzeko, planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozesuaren barruan.

GIZARTE-EKINTZAILEA

- Bere buruarekiko konfiantza
- Motibazio handia
- Pasioa
- Lidergoa
- Berrikuntza
- Erresilientzia
- Erabaki zailak hartzeko gaitasuna
- Ikuspuntua
- Inkonformismoa
- Gizarte erantzukizuna
- Konpromisoa
- Testuingurura egokitzea
- Jardueren eta enpresaren asmoaren arteko koherentzia

Praktikan jartzeko, interesgarria da ingurune hurbilena nola hobetu daitekeen edo komunitateari zerbitzuak nola eskaini dakizkiokeen jakitea.

Gazteen protagonismotik abiatuta, gizartearentzat baliagarriak izango diren esperientziak garatzea da helburua. Gero eta konplexuagoak diren eta ikaskuntza-maila handiagoa eskatzen duten egoerak konpontzen dituzten esperientziak.

Ikasketa+zerbitzua eta espirtu ekintzailea garatzea

- Ikasketa+zerbitzuko ikaskuntzako ekimenek beren baitan biltzen dituzte proiektu ekintzaile baten osagaiak eta gaitasun hori garatzeko funtsezko elementuak.
- Alde batetik, ikasketa+zerbitzuko proiektu bat garatzeko prozesu osoan aktibatzen dira ekimen-ekintzaile baten berezko ekimena, sormena, konpromisoa, lidergoa, etorkizuneko ikuspegia, autokonfiantza, arriskuak hartzeko gaitasuna, iraunkortasuna eta pentsamendu positiboa.
- Bestetik, prosozialitatea aktibatzen da, hau da, kanpoko sariak bilatzen ez dituzten portaerak, beste pertsona, talde edo helburu sozial batzuei mesede egiten diete eta elkarrekikotasun positiboa, kalitatezkoa eta solidarioa sortzeko probabilitatea handitzen dute pertsonen arteko harremanetan edo harreman sozialetan. Gainera, inplikaturako pertsonen edo taldeen nortasuna, sormena eta ekimena babesten dira.
- Ikasketa+zerbitzuko ekimenak komunitatean diharduten eragileekin eta gizarte-aldaketan inplikaturako erakundeekiko lankidetzan garatzen dira. Horri esker, sinergiak sor daitezke eta ikastetxearen eta parte-hartzaileen "kapital sozial" delakoa aberastu.
- Gazteen kapital soziala pertsonen arteko konfiantzan, elkartzeko gaitasunean, kontzientzia zibikoan eta herritartasun demokratikoaren balioetan oinarritutako esperientzien multzoa izango litzateke.



Hilvanarako diseinatzen

Aragoiko Goi Mailako Diseinu Eskolako (ESDA) espezialitate desberdinetako ikasleek bazterketa-arriskuan dauden emakumeei lagundu diete. Diseinu soziala emakumeen ekintzailatzari aplikatu diote. Haien garapen pertsonala eta profesionala sustatu dute, produktuak diseinatzeko, Hilvana ehungintza-marka garatzeko eta, horrela, baliabide gehiago sortzeko eta gizarteratzea lortzeko prestakuntza-ekintzen bidez.

Horretarako, San Ezequiel Moreno Fundazioarekin, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Sailarekin, Diseinu Industrialeko Aragoiko Zentroarekin, Zaragozako Udalarekin, Oliver Auzoko Plan Integralarekin eta Eragilean Mahaiarekin ere lan egin dute.

AYUDA EN ACCIÓN FUNDAZIOA. RAMIRO SOLÁNS HLHI
ARAGOIKO GOI MAILAKO DISEINU ESKOLA. ZARAGOZA

(2020ko Ikasketa+zerbitzuko saria. Genero berdintasuna. Ana Bella Fundazioa. Mullor)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-a-la-equidad-de-genero/>

DH Generation

Oinarrizko Lanbide Heziketako 2. mailako ikasleek komunikazio-kanpaina digital bat egin dute herritarak kontzientziatzeko sentiberatasun handiko hiru arazoren inguruan: gizalegea, langabezia eta gazteen kontsumoaren eta prestakuntzaren hobekuntza. Hainbat gizarte-erakunderekin, Udalarekin eta enpresaburuen eta merkatarien elkarteekin konektatu da.

Proiektu honetan Dos Hermanaseko Udala, Creativos 75, Periódico La Semana, Asociación Empresarial TIXE, FENACO Comerciantes Nazarenos izan dira laguntzaileak.

ANTONIO GALA IKASTETXEA. Dos Hermanas (SEVILLA)
(2021eko Ikasketa+zerbitzuko saria. Lanbide Heziketan gazteen ahalduntzea sustatzea. Gironako Printzesa Fundazioa)

<https://youtu.be/j32GELSg4Nk>

Mugi zaitez, Canteras

Egokitzapen Fisikoko eta Irakaskuntza eta Gizarte eta Kirol Animazioko Goi Mailako ikasleek astebeteko jarduera fisikoak eta kirol jarduerak diseinatu, planifikatu eta gauzatu dituzte Canteras hondartza enblematikoan. Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen zentroak eta lehen eta bigarren hezkuntzako zentroak inplikatu dituzte. Baita ariketa fisikoa egiten duten pertsonak ere.

Proiektu honetan laguntzen aritu diren erakundeak: Las Palmas Kanaria Handiko Udala, Udal Kirol Institutua, Real Club Victoria eta Go Fit, Colegio Norte Ikastetxea, Galicia Ikastetxea, APROSU Zentroa, APADIS Zentroa, Franchy Roca BHI, Tafira-Nelson Mandela BHI, Tomás Morales BHI, Mesa eta López BHI, La Isleta BHI, Isletako Adinekoen Zentroa, Tamaraceiteko Adinekoen Zentroa, Peritia et Doctrina Adinekoen Zentroa, Marzagángo Adinekoen Zentroa, Lidia García Kanariar Fundazioa.

TONY GALLARDO BHI
LAS PALMAS KANARIA HANDIKOA
(2021eko Ikasketa+zerbitzuko saria. Ohitura osasungarriak sustatzea eta gizentasuna prebenitzea. DKV Aseguruak)

<https://www.aprendizajeservicio.net/premio-promocion-de-habitos-saludables-y-prevencion-de-la-obesidad-5/>

10. ONDORIOA: IKASKET+ZERBITZUA LANBIDE HEZIKETAN: ONURA SOZIALA DUEN ERRONKA

Gure gidaren ardatza hau izan da: “garapen pertsonalean eta herritartasun demokratiko eta baketsuan laguntzea”.

Gida honetan, ikasketa+zerbitzua ikasleak hazkunde pertsonalerako eta herritartasun aktiboaren garapenerako ibilbidean aktibatzen dituen bide gisa aurkeztu da.

“Herritartasun arduratsuak” herritarren eskubideak eta erantzukizunak ezagutzearekin eta gauzatzearekin zerikusia duten alderdiak hartzen ditu barruan. Hona hemen balioak: demokrazia, giza duintasuna, askatasuna, giza eskubideekiko errespetua, tolerantzia, berdintasuna, legearekiko errespetua, justizia soziala, elkartasuna, erantzukizuna, leialtasuna, lankidetzatza, parte-hartzea eta garapen espiritual, morala, kulturala, mentala eta fisikoa.

Ikasketa+zerbitzua hezkuntza-proposamen gisa aurkeztu da eta honetara bideratu da: gazteen begirada elkartean jartzera, gizarte-premia garrantzitsuak identifikatzera, komunitatea eraldatzeko ekimenak nola ekar daitezkeen aurkitzera, eskuratutako ezagutza teknikoak aplikatzera edo proiektu solidarioen bidez errealitate hori eraldatzera.

Gogora dezagun ikasketa+zerbitzuak ikaskuntza eta komunitateari zerbitzu ematea uztartzen dituela proiektu berean. Bertan, arazo jakin batzuetarako motibatuta parte hartu dutenek ingurunean eragiten dute, hura hobetzeko asmoz.

Lanbide Heziketan, proiektuak ikasle-taldearen profesionaltasunaren adierazpen dira, eta herritarren eta profesionalen rola indartzen dute.

Erronketan oinarritutako ikaskuntzak ingurune bat eta une bat izateko modua ematen dute, non ikasleak, bakarka eta taldean, lanean jartzen diren eta emaitza bat sortzen duten. Emaitza hori interpretatu egiten da, zerk funtzionatu duen eta zerk ez aztertzen da, eta hurrengo erronkan zer egingo den desberdin erabakitzen da, goragoko helburu batzuetara hurbiltzeko.

Ikasketa+zerbitzuko oinarritzko ideiak gizarte-erabilerarako erronka gisa ikusi behar dira, bai eta funtsezko elementuak ere, hala nola gizarte-premia, elkarteari zerbitzu ematea gizarte-premia horri aurre egiteko, herritarren konpromisoaren bidez,

eta prestakuntza-curriculumaren eta sareko lanarekin lotutako ikaskuntzaren bidez.

Elementu horiekin, ikasketa+zerbitzuko proiektu bat garatzeko interesgarriak diren beste alderdi batzuetan sakondu da, hala nola hausnarketan, parte-hartzean eta sareko lanean.

Erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzaren (ETHAZI) eta "ikasketa+zerbitzuaren" arteko topaguneak ere identifikatu dira.

Lanbide Heziketan, ikasleek ekintzailetzarako gaitasuna garatu behar dutela azpimarratzen da, maila guztietan: oinarritzakoan, ertainean edo goi mailakoan.

Ekintzailetzarako gaitasunaren helburua da pertsonak gai izatea banakako edo taldeko ekintzak edo proiektuak irudikatzeko, ekiteko, garatzeko eta ebaluatzeko. Eta sormenaren, konfiantzaren, erantzukizunaren eta zentzu kritikoaren irizpideen arabera egin dezatela.

Gainera, elkarren artean zerikusia duten balio, jarrera eta trebetasun pertsonalen kontzientzia hartu eta aplikatu behar du, hala nola erantzukizuna, pertseberantzia, autoezagutza, autoestimua, sormena, autokritika, kontrol emozionala,



aukeratzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko gaitasuna, berehalako gogobetetzea atzeratzeko eta akatsetatik ikasteko gaitasuna.

- Ikasketa+zerbitzuko ikaskuntzako ekimenek beren baitan biltzen dituzte proiektu ekintzaile baten osagaiak eta gaitasun hori garatzeko funtsezko elementuak.
- Alde batetik, ikasketa+zerbitzuko proiektu bat garatzeko prozesu osoan aktibatzen dira ekimen-ekintzaile baten berezko ekimena, sormena, konpromisoa, lidergoa, etorkizuneko ikuspegia, autokonfiantza, arriskuak hartzeko gaitasuna, iraunkortasuna eta pentsamendu positiboa.
- Bestetik, prosozialitatea aktibatzen du eta elkarrekikotasun positiboa, kalitatezkoa eta solidarioa sortzeko probabilitatea handitzen du pertsonen arteko harremanetan edo harreman sozialetan, inplikaturako pertsonen edo taldeen nortasuna, sormena eta ekimena zainduz.
- Ikasketa+zerbitzuko ekimenak komunitatean diharduten eragileekin eta gizarte-aldaketan inplikaturako erakundeekiko lankidetzan garatzen dira. Horri esker, sinergiak sor daitezke eta ikastetxearen eta parte-hartzaileen "kapital sozial" delakoa aberastu.
- Gazteen kapital soziala pertsonen arteko konfiantzan, elkartzeko gaitasunean, kontzientzia zibikoan eta herritartasun demokratikoaren balioetan oinarritutako esperientzien multzoa izango litzateke.

BIBLIOGRAFIA

BATLLÉ, R. (2013). **El Aprendizaje-servicio en España**. Madril: Arg.: PPC.

BATLLE, R. eta ESCODA, E. (koordinatzaileak) CUÑADO, M^a JESÚS; GARCÍA LASO, ANA; MARTÍN, DOMINGO A. eta PRATS, DOLORS (2019). **100 Buenas prácticas de aprendizaje-servicio. Inventario de experiencias educativas con finalidad social** Madril: Santilla.

BATLLE, ROSER (2020). **Aprendizaje-servicio. Compromiso social en acción**. Santillana Activa bilduma. Madril: Santillana Educación.

KAYE, CATHRYN BERGER (2004). *The complete Guide to Service Learning*. Minneapolis. AEB.

CENTRE PROMOTOR D'APRENTATGE SERVEI (2010). **¡Practica APS! Guía práctica de Aprendizaje-Servicio para jóvenes**. Bilbao Zerbikas Fundazioa.

EURYDICE. EUROPAKO BATZORDEA (2005). **La educación para la ciudadanía en el contexto escolar europeo**. Brusela.

GARCÍA MONTERO, R. (2015). **Metodología didáctica en la formación profesional de grado medio**. Doktorego tesia Deustuko Unibertsitatea.

MARTÍN, X. eta RUBIO, L. (2010). **Prácticas de ciudadanía. Diez experiencias de aprendizaje servicio**. Bartzelona: Octaedro.

MARTÍN, XUS (2016). **Proyectos con alma. Trabajo por proyectos con servicio a la comunidad**. Bartzelona: Graó argitaletxea.

MARTN, XUS eta LOPEZ-DÓRIGA, MARÍA (2022). **Entornos que capacitan. Intervención con adolescentes en riesgo de exclusión**. Madril: NARCEA.

OBSERVATORIO DE INNOVACIÓN EDUCATIVA. Tecnológico de Monterrey. (2015eko urria). EduTrens txostena. **Aprendizaje Basado en Retos**. Monterrey. Mexiko.

PUIG ROVIRA, JOSEP MARÍA (koord.) (2015). **11 ideas clave. ¿Cómo realizar un proyecto de aprendizaje-servicio?** Bartzelona: Graó argitaletxea.

PUIG, J.M. (2009). **Aprendizaje y servicio. Educación y compromiso cívico.** Bartzelona: Grao.

PUIG, J.M.; BATLLÉ, R.; BOSCH, C. eta PALOS, J. (2007). **Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía.** Bartzelona: Octaedro.

PUIG, J.M. (2021). **Pedagogía de la acción común.** Bartzelona: Graó.

PUIG, J.M. eta MARTÍN, X. (2007). **Competencia en autonomía e iniciativa personal.** Madril: Alianza.

ROCHA PEREDA, T. (2014). **Aprendizaje-servicio en formación profesional: cómo formar ciudadanos competentes y comprometidos.** Master Amaierako Lana Deustuko Unibertsitatea.

TAPIA, M.N. (2006). **Aprendizaje y servicio solidario.** Buenos Aires: Ciudad Nueva.

UNESCO (2017). **Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible Objetivos de aprendizaje**

URUÑUELA, PEDRO M. (2018). **La metodología del Aprendizaje-Servicio. Aprender mejorando el mundo.** Madril: Narcea.

ZERBIKAS GIDA

RUBIO, L. (2008). *Zerbikas O gida: Alkasketa eta zerbitzu solidarioren sakelako gida.* Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

PUIG, J. M. Y MARTÍN, X. (2007). *Zerbikas 1 gida: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat.* Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

HERNÁNDEZ, C.; LARRAURI, J. Y MENDIA, R. (2009). *Zerbikas 2 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarritzko gaitasunak garatzea.* Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. Y MORENO, V. (2010). *Zerbikas 3 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gizarteratzeko estrategia*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2011). *Zerbikas 4 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ekiten ikastea, erkidegoa zerbitzatzen*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2012). *Zerbikas 5 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ikasketako proiektu integratua*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2013). *Zerbikas 6 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: hezkuntzako laguntza*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2017). *Zerbikas 7 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: adineko pertsona aktiboak*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2017). *Zerbikas 8 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: astialdi hezitzailean*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2022). *Zerbikas 9 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gurazoentzako gida*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2022). *Zerbikas 10 gida: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: eta neurri judizialak dituzten adingabeak*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

WEBGUNEAK

ZERBIKAS Fundazioa: www.zerbikas.es/ www.zerbikas.eus

REDAPS (Red Española de Aprendizaje-Servicio): www.aprendizajeservicio.net

PREMIOS APRENDIZAJE-SERVICIO: www.aprendizajeservicio.com

CENTRE PROMOTOR D´APRENTATGE SERVEI: <https://aprenentatgeservei.cat>

CLAYSS (Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario): <https://clayss.org>



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral